



Koskobilok badu zer esan

Arantzadi zientzia elkarteak Olatzagutian opatutako lezean arkeologia indusketa egin du / 12-13



Benjamin Urdiain, sukaldean nagusitu eta lehen 3 Michelin izarrak lortu zituen ziordiarra / 2-3

Otsaportilloko igandeko ekitaldian 1936ko biktimen 'oroimenaren alde' egingen da / 6

Euskarazko udalekuetan egon diren hurrek laguntzak eska ditzakete MANK-en / 7

60 korrikalarik parte hartuko dute bihar 1. Bargagaingo Igoeran, Tritoieneri lekukoa hartuta / 18-19

Joxe Aldasoro etxarriarrak bakarrizketa egingen du irailaren 9an, Etxarriko plazan / 21

Sakana Itsasi euskaltegia

Izena emateko azken eguna: irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea, ALTSASU
sakana@aeu.eus
948 468 258

DIRULAGUNTZAK

Sakanako Mankomunitatea eta Nafarroako Gobernua: BEKAK

Ikasi euskara, bidelagun onenarekin

aeu euskara praktikoa

Munia El Marhoum Iruretagoiena

ZIORDIA

Benjamin Urdiain Mendozaren bizitzak buelta asko eman ditu jada sukaldearen inguruan. Sukaldari famatua izan da, lehena 3 Michelin izar lortzen Madrilen zabalduko Zalacain jatetxean. 1939an jaio eta gaur arteko kontuak aitortzeko inolako arazorik ez du. Atzo gertatutako gauzak izango balira bezala kontatzen ditu bere bizitzan igarotako gorabeherak, bai arlo profesionalan, bai pertsonalean. Bere bizitzako une bakoitza zehatz mehatz gogoratzen duela dirudi. Guretzat, hobeto.

Haren Ziordiko etxean hartu gaitu, harrera egin eta barruraino pasatzeko esan. Sukaldean bazkaria martxan dago. "Gaur emazteak egingo du janaria, elkarriketa dugulako, baina normalean nik egiten dut", dio Urdiainek. 82 urteren ondoren sukaldaritzara batuta jarraitzen du.

Dena den, hasieratik hasi eta txikitako memoriez hitz egiten hasi da. "Nik sukaldaria izan nahi nuen, baita txikitari ere. Amari egunero etxean laguntzen nion, sukaldean", azaldu du ziordiarak. Hala dio salako horman zintzilik dagoen familia argazkiari begira. Bera zen 10 anai-arreben artean txikiena, baina oso gaztetatik argi izan zuen zein zen bere ametsa, eta afizio handia hartu zuen. Arazoa? Ez zegoela baliabiderik inguruan: "Ez zegoen inolako aukerarik, ostalaritza eskolarik, ezer ez. Pentsa, orain dela 66 urte izan zen hori".

Aukera familiarengandik heldu zitzaion. Bera gaztea zela, lehengusu batzuek Donostian jatetxe bat zuten. Donostia eta Errioxa artean ibiltzen ziren, eta Ziordia bidean zegoenez, bisitan geratzen ziren urtero. Urte horietako batean sukaldari izan nahi zuela ikusi zutenean, Baionako sukaldari lagun batekin hitz egin zuten. Hark sukaldean hartuko zuela esan zion. Baina, Iruñean mugaz bestalde joateko paperak prestatu bitartean, Donostiako jatetxean eman zituen pare bat



Benjamin Urdiain etxeko argazki inguratuta. MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOIENA

Sukaldetako izarra, etxean

Detalleak ahazten ez dituen sukaldaria da Benjamin Urdiain, eroso eseri eta atzera begirada bat egin du. Atsedenean dagoen gerlari baten antzera, tantaka-tantaka, haren bizipenak ezagutuko ditugu

hilabete. "Sukalde barruan egoten nintzen edozer egiten, patatak zuritzen eta halakoetan", kontatu du. Horixe izan zen, hain zuzen, Benjamin Urdiainen ibilbidearen hasiera.

Frantziako "Tourra"

"Pena eman zion nire senideari Donostiatik joan nintzenean; esan zidan denerako balio nuela", dio Benjaminek. Hala eta guztiz ere, bere hurrengo pausua Baiona izan zen. "Baionako tokia hotela, jatetxea eta gozotegia zen, pastelak ere egiten baitzituzten.

Oso toki ona da, egia esan, ikasten hasteko, hiru arloetan trebatu ahal izan nintzelako". Ia 3 urte egon zen, bertan. Hango jabearekin hitz eginda aurkitu zuen bere hurrengo geldialdia, Biarritzen: Maison Basque. "Han ere zorte handia izan nuen, sukaldeko burua zena oso profesionala baitzen. Hark gustu ona nuela ikusi zuen, eta egindako platerak probatzeko eskatzen zidan".

Uda bukatu zenean Baionara bueltatu zen, baina beste toki batera, Grand Hotel-era. Bertan

erlazio ona sortu zela kontatzen du Urdiainek. Han zegoen bitartean, Biarritzeko Maison Basque-ko sukaldari buruak deitu egin zion. Orduan Pauen zegoela esan zion, eta bigarren moduan joan nahi zuen galdetu zion: "Hark bazekien nik nola lan egiten nuen. Eta Pauen ni baino gazteagoak ziren 4 mutil zituen sukaldean. Orduan prestatuntza gehien zuena ni nuen nintzen", gogoratzen du. Eta hantxe joan zen.

Egun batean eskaera berezi bat egin zioten: Gregory Peck aktore

estatubatuarra zetorrela pelikula bat filmatzera eta harendako janaria prestatzera joateko. "Arrebarengana bueltatu behar nintzen momentuan, eta amorrux pixka bat eman zidan, baina behin bakarrik sortzen diren aukera horietako bat zela iruditu zitzaidan", dio Benjaminek. Bere etxeko atean zegoen itxaroten autoa, eta han joan zen Gregory Peck jaten ematera, Pauetik 12 kilometrotara. "Han 8 egun egon nintzen, Pauen niri itxaroten ari zirelako. Baina lehenengo egunetik Pecki prestatu niona gustatu egin zitzaion", kontatzen du, harro. Urdiainen hitzetan, Peckek egunero filmatzen hasi baino lehen whiskya edaten zuen, eta hango mendiak ikustera joaten ziren, lokalizazioak ikuskatzera. Egun batean, Peckek deitu egin zion, bere whiskyari izotzik zergatik ez zion jarri galdetuz. "Harengana joan nintzen mahaira, eta argirik ez zegoela esan nion. *Pas de lumière, pas de glace*", kontatzen du.

Abentura horiek gorabehera, 8 urte pasa zituen Frantzia aldean, eta Urdiainek dion bezala, "urte baterako bakarrik joana nintzen!" Bilboko Artagan jatetxean tokia zuela eta, Baionako bere sukalde buruari bueltatzeko asmoa zuela esan zion. Hark ere ez zion joaten utzi nahi, baina, hala ere, alde egin zuen. "Jada konpromisoa hartuta nuen duela urtebete, eta hara joan nintzen".

Bilbotik Madrilerara

Bilboko geldialdia garrantzitsua izan zen Benjaminendako, bai profesionalki bai pertsonalki. Artagango sukaldeko buruak egun batean deitu egin zion. Hark amantala kendu zuen, sukaldeko mahai baten gainean bota eta bere tokia hartuko zuela iragarri zion Benjaminari, berak kontatzen duenez. "Nik hasieran ezetz esan nion, ni baino lehenago bertan zeuden sukaldariak bazeudela. Hark erantzun zidan jabeen eta bere artean erabakia zutela ni izango nintzela buru, bera beste jatetxe batera joanen zelako", dio Urdiainek.



EGOKI
Ventanas PVC Leihok
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Bertan pasa zituen bere bizitzako hurrengo 6 urteak. Gai-nontzeko sukaldariek ongi konpondu zen, eta azkar hartu zuen sukalde buru izatearen martxa. Sukaldeko lorpenez aparte, Benjaminek Bilbon ezagutu zuen emaztea, maitemindu eta Artagan jatetxean bertan ezkondu zen. "Guk jada tokia hartuta genuen beste jatetxe batean, ezkontza ospatzeko. Baina Artagangoek ezkonduko nintzela jakin zutenean bertan ospatzeko gonbidapena egin zidaten". Ezteietako oparia izan zen hori.

Ezkondu eta bi urtetara, Artaganera bi emakume joan ziren, Urbasako fonda zutenak. Haiek Madrilera joateko aukera eskaini nahi zioten Urdiaini. "Kafetegian edonork jakin zezakeen zeri buruz hitz egiten ari ginen, eta, horregatik, etxera gonbidatu nituen", dio Benjaminek, eta joateko baldintzak zehaztu zituzten. Momentu hartan, haren seme nagusiak 2 urte zituen. Bilbon bere emaztearen lagunak zituzten, baita haien gurasoak ere, semearen kargu egiten zirenak askotan. "Laguntza eta abantaila asko genituen, eta, hala ere, emazteak animatu egin ninduen Madrilera joatera". Semeak Bilboko akaroei alergiaz zien, eta Madrilgo ingurunea harendako hobia izango zela ere azpimarratzen du Benjaminek, alai gogoratuz. Hala, Madrilgo Zalacain jatetxera joan zen: "Bertan 33 urtez egon nintzen".

Zalacain

33 urteetan zehar Zalacain ez zen esku bakarretan egon. "Jabe zaharrak beste gizon bati saldu zion jatetxea. Eta hark langile guzti guztiak mantendu zituen, ez zuen inor kalera bota. Keinu hori asko estimatu nion nik", kontatzen du Urdiainek.

Zalacainen zegoela hasi ziren sukaldari buruak jantokira ateratzen. Urdiainek dionez, lehen ez zen hori egiten: "Euskal Herriaren Arzak hasi zen hori egiten, Subijana eta Berasategi geroago, baina ez zegoen ohiturarik. Ni neu, lotsatia nintzelako, ere ez nintzen ateratzen normalean". Baina, ohitura izaten hasi zenez, bera ere ateratzen hasi zen bertan. "Behin norbaitengana aterata beste mahaietako jendeak ere nahi izaten zuen, eta, azkenean, sala guztia agurtzen nuen".

Zalacain jatetxea Jesus Maria Oyarbidek eta Consuelo Apala-



Benjamin Urdiain pozik dago egin duen bizi ibilbidearekin. M. EL MARHOUM IRURETAGOJENA

tegik zabaldu zuten 1973an. Benjaminek hitzetan "luxuzkoa" zen, eta bertako karta "aitzindaria izan zen, berritzailea". Plater batzuk mantendu egiten zituzten urte batetik bestera, eskaera handia zegoelako, baina beste gauza asko urtero aldatzen zituzten. "Gauza berriak sartzen genituen urtero kartan". Ez zen janaria soilik aldatzen, baita lokala bera ere: "Sekulako tokia zen, 500 metro karratuko jantokia, sukalde ere antzekoa, postreak egiteko ere tokia zegoen, sekulakoa. Oso-oso polita zen". Urtero udan aldatzen omen zuten alfobraren zati bat, tabakoaren usaina eta koloreagatik.

Jabeak, erretiroa hartzeko zorian zegoela, azken eskaera bat egin zion: bere alaba ezkondu

arte lanean jarraitzeko. "Nik, konfiantza banuelako berarekin, esan nion bere alaba handik 6 urtera ezkontzen bazen, ez nuela jarraituko horrenbeste. Hark esan zidan: 'nire alaba urtebetean

"ZALACAIN SEKULAKO TOKIA ZEN, 500 M²-KO JANTOKIA, SUKALDEA ANTZEKO, POSTREAK EGITEKO TOKIA ZUEN"

"NIRE KASUAN, BAINA, EGITEN DUDANA BETI EGONGO DA KOZINATUTA, BETI ONGI ELABORATUTA"

ezkonduko da, lasai", gogoratzen du. Eta hala egin zuen. 66 urterekin jubilatuta zen Benjamin Urdiain, Zalacainen 33 pasa ondoren. Eta 33 urte horietan 3 Michelin izar jaso zituen Zalacainek, lehenengoa izan zen espainiar estatuan hori lortzen. "Lehenengoak izan ginen, eta hori betirako izango dut".

Erreferentziak

Benjaminek gaztaroen erreferente falta izan zuen. "Ez zegoen gaur egun maila altuko sukaldaritzarekiko zegoen hurbiltasuna, ez zegoen telebista programarik, jende xumeak ez zuen ezagutzen. Gauzak asko aldatu dira", dio sukaldariak. Baina, hala ere, haien kartarako erreferenteak eta inspirazioa aurkitu zituen. Bidaia egiteko zegoen hori.

Urdiainen hitzetan, bera eta Jesus Maria Oyarbide, jabea, toki askotara joan ohi ziren, jabetxe askotara, eta espainiar estatutik kanpo. Urdiainek berak esperientzia bazuen Frantziako sukaldeetan, haren ibilbideagatik, 10 urte egona zelako. "Baina Oyarbiderekin bidaia asko egiten genituen Parisera, Lyonera, Bordelera... Ni gaztea nintzen Baionan eta Biarritzen egon nintzenean, eta 3 Michelin izarreko jatetxeetara joateko aukerarik ez nuen izan lehenago". Bidaia horietatik lortzen zuen inspirazioa, plater berriak sortzeko eta berritasuna eramateko Zalacainera. "Argi dago ikusitako gauza berbera ezin duzula kopiatu, hori ezinezkoa delako. Baina beti ikasten da zerbait, eta hori zure sukaldara ekarri behar duzu, zure herrira".

Bereziki gogoratzen du zierdiarrak Lyonen probatu zuen plater bat: ahate gibela arbiarekin. "Nik ahate gibela mahaspasekin edo sagar purearekin ematen nuen, beti gozoa zen zerbaitekin. Baina arbiarekin probatu nuenean buruan geratu zitzaidan", gogoratzen du. Hori erreferentzia moduan hartuta, hark Pedro Ximenez saltsa bat egin zion. Arbiak egosi eta fin moztuta, "plater izugarri ona ateratzen zen".

Urdiainen estiloa

Sukaldariak definitzerako orduan zer nolako janaria egiten duten galdetu ohi dugu. "Nire janaria elaboratua da", dio Benjaminek: "Gaur egun teknika berriak erabiltzea dago modan, jakiak ko-

zintatu gabe eta gordinik jatea, eta halako gauzak. Nire kasuan, baina, egiten dudana beti egongo da kozinatuta, beti ongi elaboratuta".

Zierdiak sukaldari ugari eman dituela ere aipatzen du, harro. Hain zuzen ere, Nafarroa, eta Ziordia, presente daude bere sukaldean. Zalacainen karta urtero aldatzen bazen ere, beti mantentzen zuen plater bat ajoarrieroan oinarrituta zegoen, hain zuzen ere. "Saltsa aldatu nion platerari. Tomatea zuen oinarri nik sortu nuen saltsak, baina pixka bat desberdina". Platerari izena eman behar zioten orduan. Ajoarriero ezin zioten jarri, eta 'Teilagorri' izena proposatu zion Oyarbidek. "Platera nik sortu nuen, baina izena ez, hori jabeak. Eta niri asko gustatu zitzaidan, hitzak duen esanahiagatik", gogoratzen du alai.

Horrez aparte, bere saltsengatik oso ezaguna egin zen Urdiain. "Ez dakit ongi dagoen nik esatea, baina oso gustu ona nuen eta dut oraindik. Horregatik, beti egin izan ditut saltsa onak. Saltsen erregea ere deitu izan naute", kontatzen du.

Erretiroan, baina ez guztiz

Gaur egun Benjamin erretiratu dago. Edo hala da teorian. Izan ere, pandemia aurretik Caritasekin sukaldaritzak klaseak ematen egon zen, eta oraindik plana badute klase horiek berrartzeko. Gainera, egunero prestatzen du janaria etxean. Errezetak gogoan ditu, eta detaile guztiekin azaldu ditzake: "Nik gauza bat argi daukat, hilobira ez dut eramango sekreturik. Askotan esaten da sukaldariak sekretuak dituela eta bere errezetak gordetzen dituela. Nik ez dut inolako arazorik horiek emateko, ez du zentzurik gordetzeak eta". Sukaldearekin betidanik izan du amodio harremana, inoiz ez du galdu harekiko miresmena eta kemena. Eta hala jarraitzen du, egunero.

Hortaz, bere bizitzako bidaia-ri erreposoa eginda, atzera begiratzea besterik ez da geratzen. Eta maitasunarekin egitea. "Nik ez nuen beste ezer egin nahi orduan, eta orain ere ez naiz egindako ezertaz damutzen. Oso pozik nago lortutako guztiarekin, bai sukaldean, bai nire bizitza pertsonalean", azpimarratzen du. Eta norbere ibilbidearekin pozik egotea, hori ere ez dago gaizki.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Udan behera

Udako azken asteak ibili geldoan badoaz, emeki baina arduratsu, astiro bezain zeregintsuki, patxadaz bezain aztoraturik.

Oso behiala ez zela, industria eta digitalizazioaren jendarte irudikatu ezin zeneko aroetan, gariaren (eta garagarraren) lanak amaitu ondoren, bestelako biltze eta uzta lanetan zebiltzan herritarrak, eta, harekin batera, festaburu tenorea izaten zen herri ugarian.

Egun, bestelako lanak dauzkagu "jardunurtea" abiatzen dugularik eta lastoaren eta iraren (edo istorraren / garoaren) hila izan ordez ikasliburu berrien eskuratzea, eta yoga, gimnasio edota igeriketa saioen ordutegia zehaztea da egitekoa asteotan.

Udara, bestalde, herri ttipi eta kokkorren bizkortzearen garaia da; plazak eta karririk jolas, solas eta elkarraldien gertalekuak izaten dira, lan sasoiko isiltasun luzearen ondoren.

Aurtengo uda, pandemiako bigarrena, eta Delta aldaera jaun eta etxeko andere bihurtu zaigun honetan, urrunerako asmoak bazter utzirik, jende anitzek begiak eta oinak gertuko parajeetan ipini ditu; eta Sakanako bazter miresgarriek bisitari multzo bat baino gehiago ekarri dute, egunpasa ederrak egiteko, Urmugako "bolo" zoragarria Aizperron, esate baterako.

Gainera, Mediterraneo aldea bero larriak astindu badu ere, lainozko txapelak ongi babestu du Burunda-Aranatz-Arakil lerroa uztail nahiz abuztuko egun frankotan.

Aurki gorri, horail eta urre ñabarrak nagusituko dira gure baso eta mendietan, eta hotz, epel edo bero, heze ala idor, natura bere atsedean xumera doa poliki-poliki.

Dosta gaitzen izadiaren ikuskizun eta janzkera berriaz. Jardunurte berri on.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Klase politikoa

SAKANAKO TRENAREN ALDE, AHTRIK EZ PLATAFORMA

Joan den mendeko 70. hamarkadan hainbat talde ekologista gure zibilizazioaren eraginez naturaren hondatze larriaren lehen zantzuak salatzen hasi ziren. 1988. urtean NASAKO zientzialari batek AEBetako Kongresuan lehen aldiz baieztatu zuen klimaren beroketa gizateriak sortua zela, eta handik aurrera ikerketa zientifikoek hura baieztatu dute urtez urte.

Azken hamarkadan inoizko tenperaturarik garaienak izan ditugu mundu guztian barna. Uda honetan, Italiako

hegoaldean, neurketak egiten hasi ginenetik Europako inoizko tenperaturarik altuena erregistratu da. Ipar hemisferioan kokaturik dagoen Kanada herrialdean makina bat jende hil da Saudi Arabiako basamortuan izaten diren tenperatura berberak ezin pairaturik.

Pitteka-pitteka gure klase politikoa, ustez, egoeraren larritasunaz ohartzen joan da, eta honela mundu mailako goi bilkura garrantzitsuak egin dituzte. Adierazpen entzutetsuak onartu dituzte aurpegi serioekin arazoari ekin behar zaiola esanez, ondoren, betiko eredu garapenzale suntsitzailari eusteko. Etorri dira Kiotoko Protokoloa, Parisko Adierazpena eta beste hainbat

adierazpen eta horiei loturiko lege eta araudiak. Gure klase politikoa, aho bete hortz, modako hitzak darabiltza prentsaurreko eta plangintzetan: iraunkortasuna, jasangarria, berriztagarria, berdea, ekologikoa... Baina oraintsu, Estatuko gobernuak Bartzelonako eta Madrilgo aireportuak handitzeko asmoa agertu du, gehien kutsatzen duen garraio ereduari eutsiz. Nafarroan, Esako urtegi handituaren ondoren, izugarriko potasa meategia onartu dute, eta Nafarroako Ubidea zabaltzea, haize eta eguzki baratz saldoa sortzea, ziza larreen antzera. Edota Aroztegia moduko turismo eredu jasanezina sustatzea. Eta AHT? Aurrera! Naturak hau ere jasanen du eta.

GUTUNA

Euskaldun izateko eskubidearen defentsan

ERKUDEN BARANDIARAN GOÑI

Badira aste batzuk Arnas Dezagun deitzen den guraso talde batek nolabaiteko poztasuna sortu zidana. Ez "Ez sakabanatu eskolan haur euskal hiztunak!" artikuluan idazten zutena berria zelako edo harritu ninduelako, guztiz identifikatua sentitu nintzelako baiziki.

Bikotekidea eta biok euskaldunak gara (euskaradunak, hau ere esplikatuko behar omen da eta), gure seme-alabak ere bai, noski; eta euskaraz bizi nahi dugu, atrebentzia ez bada.

Ez genuen uste Sakanan zailtasun berezirik izango genuenik horretarako.

Gure kasuan, umeak Etxarri Aranazko San Donato ikastetxe publikoan izan ziren, eta hirugarrena ere bertan da. Eskolak ahalegin handia egin zuen A eredu desager zedin; erdaldunak euskalduntzen izugarriko lana egin zuten, aisialdia euskaraz bultzatu zen eta atsedendian umeak euskaraz ari zitezen programa ugari zituzten (jolas bideratuak, txartel jokoak...) Iritsi da baina, institutura joateko uea.

Talde berria egokitzen zaie (jatorrizkoak puskatzen dituzte) baina euskararen erabilera ez da horiek osatzeko unean irizpide bezala kontuan hartzen. Eta ondorioak halakoxeak. Alabaren kasuan, D eredu matrikulatuta egon arren hizkuntza ohiturak guztiz aldatu ziren, institutuan eta kalean solasaldi guztiak gaztelaniaz egiten zituen, etxean

ere gaztelania erabiltzen hasi zen... Desastrea.

Esperantzara kondenatuak gaudela dio Garik, eta hori izango da akaso, baina argi izpi bat ikusi dut. Alabak, 16 urterekin, Etxarriko eskolako lagunekin euskaraz hitz egiteko ohiturari eusten dio, ikastetxe hura harendako arnagune ederra izan zelako. Altsasuko Institutuan sortu ziren harreman berriak gaztelaniaz sortu ziren, eta hala jarraitzen dute izaten, erdaraz.

Ikastetxean gure seme-alabek euskaraz naturaltasunez eta eroso egiteko aukera izan dezaten baldintzak sortu behar dira, deitu arnagune edo deitu nahi bezala. Horretarako, gure etxean, gure herrian, gure eskubidea daukagu.

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larrazza

Kolaboratzaileak:

Munia El Marhoum Iruretagoiena

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernu

OBJEKTIBOTIK



UTZITAKOA

Txakur kakak, kalean

Etxarriar batek bidalitako argazkian kalean opatutako txakur kakak ageri dira. Nahikoa zikinkeria ez eta "leku berebean, postretako, gizakien pixe" gaineratu du. Etxarriarra, beste sakandar asko bezala, herrietako kaleetan jaso gabeko txakurren kakez kopetaraino dago, eta jabeei heziketa eta gainontzeko herritarrekiko errespetua eskatu die.

ZUZENKETAK

Garileko azken zenbakian, 22. orrian, Etxarri Aranatzi eskainitako orrian izen bat gaizki eman genuen; izen zuzena Juana Mari Jauregi da. Zenbaki berean, 24. orrian, Bakaikuri eskainitakoan akatsak argitaratu genituen. Lehenik, Anbeiko iturria ez, Beheko Iturria da. Bestetik, La fuente de la Otxoa beharrea La fuente de Olatxoa beharko luke. Arkitektoaren abizena Sagasibar ez, Sarasibar da. Eta, azkenik, Anbeiko auzoa, beharrea Anbeheko auzoa behar luke. Sortutako nahasmenagatik barkamena eskatzen dugu.

Euskara 'ahoratzeko' deialdia egin dute

Helduen artean euskararen ikaskuntza sustatu nahi duen 'Euskera ahora' kanpaina, batik bat, gazte jendeari zuzendu zaio, gazteak euskara ikastera bultzatzeko, "euskara ikastea hautu erakargarria baita, bizipen eta aukera ugari ematen dituen"

SAKANA

Pertsona helduak, bereziki gazteak, euskaltegietan izena eman eta euskara ikastera gonbidatzeko sortu da *Euskara ahora. Ika-si eta mugitu zure mundua!* kanpaina. "Aurtengo kanpaina, adin guztietarako bada ere, gazteei begira egin da bereziki, eta horretan nabarmendu nahi izan dugu euskara ikastea aukera ezin hobea dela harreman pertsonalak ehuntzeko eta gizarteratzeko, euskal kulturara hurbildu eta ezagutzeko eta lan aukerak zabaltzeko. Zentzu horretan, ez da ahaztu behar euskararen komunitatea dinamiko eta gertukoa dela, eta euskara ikasleari babesa ematen diola". Hala azaldu du Nafarroako 33 toki entitatearen izenean Erronkaribarko Batzordeburu Eneko Egiuren Ruizek.

Gaur egun euskaltegietan euskara aurrez aurreko klaseen, ikastaro erdi presentzialen edo bide telematikoen bidez ikasi daiteke. Horretarako euskaltegiak prest daude, baliabide berriak eskuratu dituzte eta, horregatik, aurreko ikasturtea gorabehera handirik gabe eman zuten. Euskarabidearen zuzendari kudeatzailea den Mikel Arregik euskaltegiek egindako lana azpimarratu nahi izan du; izan ere,



Euskara ahoan inon baino hobe dago. UTZITAKOA

"eskaintza mantentzeaz aparte, telelanaren eta erreminta birtualen bitartez aberastu egin dute". Euskaltegiak, esan zuen, "ekarpen garrantzitsua egin diote Nafarroako gizarteari eta egiten jarraituko dute, orain bizitzea egokitu zaigun krisi garai honetan ere".

Gizarte-ekimeneko euskaltegien ordezkari aritu den Beatriz Buldain AEK-ko euskara irakasleak nabarmendu duenez: "Euskaltegietan gure eskura dauden neurri guztiak jarriko ditugu euskara eskolak osasun berme

gutziz eskaintzeko". Hala berean, nafar guztiak "euskara ikastera" animatu nahi izan du, "Nafarroa osoko 100 bat herri eta auzotan dauden euskaltegietan".

Informazioa eta laguntzak

Urteak dira Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak (948 464 840 edo euskara1@sakana-mank.eus) euskara ikasten duten helduendako dirulaguntzak ematen dituela. Gainera, Euskarabidearen laguntzak daude, irailaren 27tik lastailaren 24ra eska daitezkeenak.

EGUN ON SAKANA



FB - TW - IG

GOIZERO 10:00-12:00 | ERREPIKAPENAK 14:00

08:30 NAFARROAKO ALBISTEAK
EUSKALERRIA IRRATIAREN ESKUTIK
10:00 PRENTSA ETA EGURALDIA
10:15 BATETI BESTIA
10:20 EGUNEKO ALBISTEAK
10:45 HIZKETAN
11:15 SAREA: ARALAR ETA KARRAPE IRRATIKOEKIN
11:55 AGURRA

107.3 FM
beleixe
ONLINE WWW.GUAIXE.EUS

Ekonomia errepresioa 148 sakandarren kontra

Memoriaren Nafarroako Institutuak 1936tik 1966ra Nafarroan errepresio ekonomikoak kaltetutako pertsonak behin-behineko errolda batean jaso ditu. Zerrendako sakandarretatik 3 emakumezkoak dira eta 145 gizonetzkoak

SAKANA

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuaren menpeko den Memoriaren Nafarroako Institutuak 1936tik 1966ra errepresio ekonomikoak Nafarroan kaltetutako pertsonen behin-behineko errolda osatu du 1.086 pertsonarekin (1.012 gizonetzko eta 74 emakumezko). Tartean daude 148 sakandar: 111 altsasuar, 31 olaztiar, bi etxarriar eta Egiarreta, Uhartea Arakil, Arbizu eta Ziordiko bana ageri dira zerren-



dan. Erroldan jaso dira guztien kontra Ondasunen Konfiskaziorako Probintzia Batzordeak eta Nafarroako Erantzukizun Politikoen Eskualde Auzitegiak hasitako espedienteen datu pertsonalak eta gertaera nagusiak.

Institutuko zuzendari Josemi Gastonek azaldu zuenez, "ekonomia errepresioa matxinatuen indarkeriaren beste modu bat da, eta ezezagunenetako bat". Era berean, errepresio mota horretako moduren bat jasan dutela egiaztatzen duten agiriak gordetzen dituztenei dei egin die institutuarekin harremanetan jar daitezen, inn@navarra.es helbidearen bidez. Ikertzen segituko dutela gaineratu zuen. Ekonomia errepresioak hainbat modu izan zituen: harrapaketa, konfiskazioa eta isunak, eta ge-roago, errepresioari legezotasun itxura eman zioten 108 dekretuaren eta Erantzukizun Politikoen Legearen pean hasitako espedienteekin.

Otsaportillon hitzordua

1936ko estatu kolpearen ondoren errepresaliatuak izan ziren sakandar guztiak "omentzeko eta esker ona azaltzeko" ekitaldia egingen da igandean, 12:30ean, Otsaportilloko leze ondoan. Iraileko lehen igandeko ekitaldia 1980az geroztik antolatzen da. Eraildako senideak, Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin, hasi ziren eta 2017an sinatutako hitzarmen baten ondorioz, Sakanako udalak antolatzea pasa ziren. Aurten antolaketan Arakil eta Irurtzango Udalak ariko dira. Ekitaldian osasun agintariak ezarritako prebentzio neurriak errespetatuko dituzte.

Erroldako sakandarrak

Egiarreta

- Astiz Zubieta, Mariano

Uhartea Arakil

- Huarte Gamboa, Pascual

Arbizu

- Flores Arbizu, Martin

Etxarri Aranatz

- Artieda Lizarraga, Jose
- Larraza Mundieta, Martina

Altsasu

- Andreu Garces, Jesus
- Aramendia Celaya, Jose
- Arza Echevarria, Ignacio
- Arza Echeverria, Gregorio
- Arza Lecea, Ignacio
- Ayensa Bellido, Julian
- Balmaseda Aldana, Hipolito
- Bengoechea Echevarria, Miguel
- Bengoechea Echeverria, Pablo
- Bengoechea Urdiain, Sebastian
- Canteras Sagarrabay, Jesus
- Casteig Lerchundi, Jose
- Ceberio Imaz, Jacinto
- Celaya Arrizabalaga, Juan
- Celaya Celaya, Jose
- Celaya Celaya, Marcelino
- Celaya Echeverria, Domingo
- Celaya Iriarte, Jose
- Celaya Iriarte, Juan
- Celaya Mendiluce, Emilio

- Celaya Mendiluce, Jose Maria
- Celaya Vales, Francisco
- Celaya Zabalo, Florencio
- Diaz Arza, Juan
- Echarri Iriarte, Jose
- Echeverria Mendiluce, Segundo
- Echeverria Zabalo, Claudio
- Echeverria Zabalo, Felix
- Elizalde Mendia, Jose
- Elizondo Villanueva, Jose
- España Valderrama, Vicente
- Espi Bas, Juan
- Garasa Lecea, Francisco
- Garasa Lecea, Jose
- Garcia Martin, Nicolas
- Garcia Prada, Santos
- Garcia Rubio, Faustino
- Garcia Sagasta, Bautista
- Garcia Sotes, Enrique
- Gaujot Garces, Ernesto
- Gil Lopez, Felix
- Goicoechea Bengoechea, Agueda
- Goicoechea Celaya, Apolinar
- Goicoechea Goicoechea, Francisco
- Goicoechea Goicoechea, Jose
- Goicoechea Goicoechea, Luis
- Goicoechea Iriarte, Antonio
- Goicoechea Uribe, Francisco
- Gonzalez (De La Rota) Arregui, Gregorio
- Gonzalez (De La Rota) Arregui, Jose

- Gonzalez (De La Rota) Arregui, Julian
- Gorospe Lecea, Jose
- Hidalgo Garcia, Saturnino
- Ibañez Aguado, Tomas
- Iglesias Otegui, Luis
- Iradi Celaya, Julian
- Iradi Ramila, Pio
- Iriarte Goicoechea, Bernardo
- Iriarte Lecea, Juan Cruz
- Lacalle Fernandez, Vicente
- Larraza Celaya, Andres
- Larraza Celaya, Lazaro
- Larraza Saez, Juan
- Larrea Uribe, Juan Cruz
- Larrea Uribe, Martin Jose
- Larrea Uribe, Miguel
- Lecea Iriarte, Balbino
- Lecea Iriarte, Juan
- Lecea Larraza, Alejandro
- Lecea Larraza, Jose
- Lecea Larraza, Zacarias
- Lecea Lecea, Juan
- Lecea Lecea, Manuel
- Lopez Garcia, Miguel
- Lopez Lacalle, Manuel
- Lopez Urdiain, Martin
- Lopez De Heredia Ruiz, Vicente
- Martin Bernaldo De Quiros, Eusebio
- Martin Bernaldo De Quiros, Ricardo
- Martin Clemente, Eugenio
- Mazquiarian Celaya, Antonio

- Mazquiarian Goicoechea, Andres
- Miguel Gamarra, Fermin
- Morcillo Galan, Valentin
- Mugica Albizu, Antonio
- Navarro Lizarralde, Angel
- Ochoa Bados, Martin
- Oraa Burgui, Eduardo
- Ortiz Ibarra, Aurelio
- Osés Landa, Felipe
- Oyarguren Oyarguren, Pablo
- Pereda Ulibarri, Manuel
- Perez Garcia, Luis
- Prieto Alvarez, Felipe
- Prieto Alvarez, Ramon
- Rubio Lecea, Juan
- Salinas Jaca, Constantino
- San Roman Iturrioz, Jose
- San Roman Larraza, Juan
- San Roman Urdiain, Simon
- San Roman Zufiurre, Francisco
- Soto Cormenzana, Herminio
- Urteaga Beraza, Javier
- Veramendi Ruiz, Antonio
- Vila Hernandez, Jose
- Zabalo Larraza, Francisco
- Zabalo Larraza, Juan
- Zornoza Iriarte, Isidoro
- Zornoza Jorge, Isidro
- Zubiaurre Lecea, Juan
- Zufiurre Lecea, Martin

Olatzagutia

- Aguirre Lacha, Agustin
- Amiama Fernandez, Epifanio

- Aramendia San Roman, Francisco
- Aramendia San Roman, Tomas
- Argomaniz Eguidazu, Vicente
- Bengoechea Garabieta, Francisco
- Echevarria Galbete, Narciso
- Echeandia Gastaminza, Leandro
- Galbete Lopez De Goicoechea, German
- Galbete Lopez De Goicoechea, Jose
- Garcia Arteaga, Enrique
- Garcia Atufedo, Jose
- Gastaminza Eraso, Julian
- Gomez Dueñas, Justino
- Guardado Panero, Pablo
- Gurmindo Azpiolea, Benigno
- Gurmindo Echandia, Angel
- Imaz Urteaga, Felix
- Larrion Martinez, Feliciano
- Lasa Otegui, Fernando
- Lopez Albeniz, Jesus
- Lopez Lopez, Martina
- Nazabal Bengoechea, Teodoro
- Perez Gamiz, Enrique
- Rivero Sanchez, Jesus
- Saez de Cortazar Mtz, Faustino
- San Roman Ormazabal, Hilario
- Santamaria Acedo, Valeriano
- Uria Mazquiarian, Domingo
- Zabala Sola, Angel
- Zubicoa Exposito, Jose

Ziordia

- Lacalle Ochoa, Santiago

Euskara hutsezko udako aisialdia sustatzea laguntzeko

Dirulaguntza eskabideak irailaren 30era arte egin daitezke Mank-eko euskara zerbitzuan

SAKANA

Garagarriaren 15etik irailaren 30era bitartean euskara hutsezko udalekuren batean egon diren haur eta gaztetxoek gurasoek dirulaguntza eskatzeko aukera dute. Baldin eta udalekuak 5 egun (4 gau) eta 15 egun (14 gau) bitartean irau baditu. Euskara Zerbitzuan eskabide ofiziala betetzearekin batera, honako dokumentazioa gehitu beharko da: udalekura joan denaren aita, ama edo tutorearen nortasun agiriaren fotokopia, udalekura joan denaren erroldatze agiria, udalekuari buruzko ezaugarriak (iraupena, hizkuntza, egitaraua) biltzen dituen dokumentua edo publizitaterako erabili den euskarria, udalekura antolatu duen entitateak izenpeturiko asistentzia egiaztagiria, eskatzaileak udalekuaren gastu osoa ordaindu izanaren ordainagiria(k) eta



Bi mutiko jolas parkean. ARTXIBOA

aitorpena, objektu horretarako administrazio publikoei edo entitate pribatuei eskatutako edo haiek emandako dirulaguntza guztiena. Dokumentazioa Mank-en Lakuntzako egoitzan edo egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu daiteke.

Plazaolan 20.700 oinezko eta 2.800 txirrindulari zenbatuta

Gobernuak jarritako oinezko eta bizikleten kontagailuek datu horiek eman dituzte ilbeltzetik agorrilera

ARAKIL / IRURTZUN

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusiak Foru Komunitateko toki turistiko enblematikoetan oinezko eta bizikleten kontagailuak jarri zituen. Plazaola bide berdean halako bi jarri zituen, Lekunberrin eta Irurtzun.

Zortzi hilabeteen 20.711 oinezko zenbatu zituen Irurtzun parean, eta 15.681 Lekunberrin. Nafarroako toki enblematikoen artean Plazaola bide berdea ibiltarien laugarren aukera da, Irati, Urederra eta Amaiurren atzetik. Txirrindulariei dagokienez, Irurtzundik 2.809 pasa ziren zortzi hilabetetan eta Lekunberritik, berriz, 2.314. Nafarroako gainontzeko bide berdeekin alderatuta, kopuru txikiena zenbatu da Plazaolan, baina Donejakue bidean baino gehiago. Txirrindularien kopuruak %37



Oinezkoak Plazaolan. ARTXIBOA

egin du gora ibilbide enblematikoetan.

Datuak eskuetan, Nafarroako Gobernutik adierazi dutenez, "baliabide turistikoetara eta Nafarroan egindako ibilbideetara joateko joera berreskuratzen ari da".

Arakilgo barietateen gida jendurrean aurkeztuko dute

Ostegunean, 18:00etan, Egiharretako Itxasperi ermitan. Edukiera mugatua da eta aurretik izena eman behar da

ARAKIL

COVID-19 gaitzagatik garilaren 25ean egitekoa zen aurkezpena ostegunera aldatu du udalak. *Arakilgo bertako barietateen gida. Nekazaritza bioaniztasunari lotutako ezagutza tradizio-*

nalaren bilketa bat gida. Hura aurkeztu eta mahai inguruko antolatu da, nekazaritzako landare barietateei buruzko informazioa biltzen parte hartu duten zenbait arakildarrekin. Izan ere, gida osatzeko nekazaritzan ari-

tu diren 50 arakildar baino gehiago elkarrizketatu dituzte. Haiek emandako informazioarekin atal ugari dituzten fitxak sortu dira, landare barietate bakoitzaren deskribapena, balorazioa, erabilera eta kontserbazio egoera ezarri eta zenbait argazki gehituz.

Aurkezpena joateko izena eman behar da Arakilgo udal-txean: 634 584 26 edo 948 500 101 telefono zenbakietara hots eginez, irailaren 8a baino lehen. Arakildarrek izanen dute lehentasuna.

MERKATARITZA KALEAN

Irailak 3 eta 4



Parte-hartzalleak:

Arkatx Liburudenda, Asensio Moda, Bengoetxea Oinetakoak, Lezea Kirolak, Ekin Moda, Iker Kirolak, Joselen-Joss, Katuka, Mari Carmen, ML (gizona), ML (emakumea), Lasa Kirolak, Larka, Pinpilinpaua, Sare Oinetakoak, Tu Tienda Especial, Txikitxo.



Ayto. de Albasan



Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa

Boluntarioak behar dira 1.231 km-ko erronkarako

Sarek guztira 80 herritar behar ditu guztien artean, herritik mugitu gabe, Etxarri Aranatz eta herriko presoak dauden kartzelen arteko distantzia osatzeko. Erronka irailaren 11n osatu nahi dute, bizikletan ibiliz, korrika eta oinez

ETXARRI ARANATZ

Ibilian-ibilian dinamikaren barruan, Sarek *Beyetz 1.231 km* erronka bota die etxarriarrei: 1.231 km egitean herrian irailaren 11n. Distantzia hori da Etxarri Aranatz eta Jon Gurutz Maiza Artola, Asier Karrera Arenzana, Luis Mariñelarena Garziandia, Unai Parot Navarro, Juan Ramon Karasatorre Aldaz eta Karlos Apestegia Jaka presoak dauden kartzelen artean dagoena. Erronka joz, Sarek "herritarren etxeratzea aldarrikatu" nahi du.

Sarek jakinarazi duenez, 1.231 km-ak zortzi ordutan osatu nahi dituzte, irailaren 11n. Gutxienez 80 pertsona behar dituzte honakoak egiteko: bizikleta estatikoan edo arrabolan ariko diren 40 pertsona, (orduko bost), korrika eginen duten 16 pertsona (orduko bi) eta oinez ibiliko diren 24 pertsona (orduko 3).

Beste etapa bat

Sarek aitortu duenez, "espetxe politikan aldaketak izan dira, beste etapa bat zabaltzeko momentua dela erakutsi dute. Urteetan iraundako salbuespen legediaren oinarri nagusi izandako urruntze politikaren akabera iristen hasi da". Hurbiltze hori "akaberaraino ailegatzeko



Etxarri Aranatzeko agorriaren hasieran egindako manifestazioa. ©SAREETXARRI

pausoak eman behar ditugu", gatzigatu dute Sareko kideek, eta gaineratu dute: "orain salbuespen legedia atzean utzi eta legedi arrunterako bidea egia bihurtu behar dugu, euskal presoentxeratze bidea egia bihurtzeko".

Horretarako, Sarek bost egiteko ezinbesteko jo ditu: preso guztiak Euskal Herriko kartzelerara ekartzea; preso guztiei gradu progresiorako bidea ahalbidetzea eta, bereziki, zigorraren hiru laurdenak beteta dituztenei 3. gradua ezartzea; larriki gaixo

dauden eta 70 urtetik gora dituzten presoak etxeratzea; 7/2003 Lege Organikoaren baitan zigortutako presoek legedi arrunta ezartzea eta zigorraren batuketa egitea, aurrez betetako zigorrak birritan betetzea ekidinez.

Sarek hurrengo deialdietan parte hartzera deitu du: heldu den ostiralean, 19:30ean, Altsasuko Zumalakarregi plazatik abiatuko den eskualdeko manifestazioan; heldu den larunbatean, 10:30ean, Arbizun herrikoen eta aulestiarren arteko erronkan edo Etxarriko erronkan.



Errepresioaren kontrako mugimenduaren deialdiak hedabideak erakarri zituen.

Ospa!-k errepresioaren kontra antolatzeke deia berretsi du

Hamargarren urtez errepresio indarrak ez dituztela nahi adierazi zuen larunbateko manifestazioaren ondoren

ALTSASU

Ospa! mugimenduak larunbateko manifestazioaren akaberan adierazi zuenez, "hamar urtetan hainbat errepresio motari aurre egin diegu zorrotasun politikoa eta satira tresna izanda". Ospakoek azaldu zuten, "desjabetuon kontrako errepresioa ez da egun batetik bestera bukatuko, kapitalaren sistema erabat gaindituz baino ez da posible". Horregatik, "errepresioaren kontra antolatzeke deia" egin zuten, eta Lizarrako eta Altsasuko ereduak aipatu zituzten, "errepresioaren kontra bultzatzen ari diren erremintak garatuz antolakuntzaren hauspotze bat bermatzeko".

Ospako kideek salatu zuten, "azken urte eta erdi hau ezagutu dugun gogorrena izan da. Kontrol soziala inoiz imajinatu ez dugun maila basati eta beldurgarri batera iritsi da". Mugimendukoek azaldu dutenez,

"gizarte kontrola sistema kapitalistaren kapital akumulazio dinamika bermatzeko praktika natural gisa ulertzen dugu. Borterea dutenen ikuspuntutik poliziaren figura geroz eta beharrezkoagoa da, eta horren beharrezkotasun faltsu eta artifizialaren ideia barneratu da gizartean. Horren jakitun, estatuak, osasun larrialdi egoera beren interesak defendatzeko erabiltzen ari dira, atxilotzeko eta isunak jartzeko erraztasuna handitu da". Nabarmendu zuten, "masa komunikabideek errepresioaren eta kontrolaren gorakadan paper ukaezina izan dute, errepresioa jasaten dutenak kriminalizatuz eta poliziaren abusuak justifikatuz". Gaineratu zuten, hainbat alderdi politikok "poliziaren ekintzak babestu dituzte, eta, horregatik, kontrol sozialaren handitzearen kolaboratzaile zuzenak ere badira".

Lasaren omenezko oroigarria jarri du familiak

Olaberriarra 1936ko agorriaren 25ean erail zuten Lizarrustin, eta urteurren egunean jarri zuten

ETXARRI ARANATZ

Duela 85 urte gertatutakoa oroitarazteko, Martzelo Lasa Zeberio fusilatu zuten urteurrenako egunean, haren familiak oroigarria mustu zuen Lizarrustin. Han izen abizenekin batera, zera ira-

kurri daiteke euskaraz: "Olaberriarra, abertzalea izateagatik fusilatu zuten hemen bi goierriar frankistek 1936ko abuztuaren 25ean 17 urte zituela. 82 urte pasa behar izan ziren, hezurak aurkitu eta sorterrian atsedean eman

ahal izan arte". 1936ko estatu kolpearen ondorengo errepresioaren biktima izan zen Lasa olaberriarra. Haren familiak historia memoria mantentzeko oroigarria jarri du eta Etxarri Aranatzko alkate Silvia Maraño Chasco urteurrenaren ekitaldira gonbidatu zuten.

Quifosa zenaren ondoan, Lasa zenaren hezurdura lurpetik ateratu zuen 2018ko irailaren 2an, eta DNA bidez identifikatu ondoren, hilabete hartako 21ean jaso zituen familiak gorpuzkiak.



Fusilazearen urteurren ekitaldian Etxarriko alkatea izan zen. ETXARRI ARANATZKO UDALA

Dagoeneko COVID-19 gaitzak %14,39 kutsatu du

Garilean 235 izan ziren. Agorrilean, berriz, kopuruak behera egin zuen, eta 199 gaixo zenbatu dituzte

SAKANA

Nafarroan 661.197 pertsona bizi dira. Pandemia hasi zenetik agorrilaren akaberara 78.837 nafarrek COVID-19 gaitzarekin gaitxotu dira, hau da, nafarren %11,92k koronabirusaren eraginak pairatu ditu. Denbora tarte berean 2.916 sakandar kutsatu dira, ibarreko populazioaren %14,39, Nafarroako datuarekin konparatuta, 2,47 puntu gehiago. Koronabirusak gaitxotutako pertsonen portzentajeari erreparatuz gero, Nafarroako kutsatzen portzentajetik gora daude Sakanako hamar udalerrri, gainontzeko bostek maila txikiagoa dute.

Agorrilaren akabera arte gaitzak gehien jo duen udalerrria Urdiain da, %23,55. Atzetik ditu Etxarri Aranatz %19,38rekin, Arbizu %17,31rekin, Iturmendi %16,55ekin eta Lakuntza %16,24rekin. Maila bat beherago, baina Nafarroako bataz beste koaren gainetik beste bost udalerrri ditugu: Irañeta %14,79, Irurtzun %14,33, Uhartea Arakil %14,2, Ergoiena %12,97 eta Altsasu %12,55.

Nafarroako kutsatuen %11,92 kopurua gutxigatik ez du gainditzen Olatzagutiak, %11,81 baitu. Muga horretatik urrutixeago daude Bakaiku %11,11rekin, Ziordia %10,86rekin eta Arakil

%10,71rekin. COVID-19agatik kutsatu gutxien izan duen udalerrria Arruazu izan da: %8,49.

Txertaketa

Osasunbideak jakinarazi duenez, Nafarroan 466.372 pertsonak

txertaketa pautu osoa jaso dute, hau da, txertoa har dezaketen 12 urtetik gorako biztanleen %80,2 eta Foru Komunitateko biztanle guztien %70,5. Era berean, dosi bat du, gutxienez, txertoa har dezaketen biztanleen %87,1ek

eta guztien %76,5ek. Osasun Departamentuak 24.000 dosi eman ditu aste honetan. Atzo Irurtzongo kiroldegian Leitza eta Sakanako osasun eskualdeetako 600 gazte inguruk jaso zuten bigarren txertoa.

Sakanako COVID-19 kasuak 2021ean hilabeteka

Udalerria	Herria	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Abu.	Guztira
Irurtzun		17	9	4	43	5	0	48	13	322
Arakil		3	14	3	8	1	0	27	5	103
	Aizkorbe	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	Urritzola	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	Errotz	0	0	1	0	0	0	1	0	2
	Izurdiaga	1	2	0	0	0	0	5	3	15
	Etxeberri	0	0	0	0	0	0	7	0	13
	Egiarreta	0	0	0	0	0	0	4	1	11
	Etxarren	1	2	1	5	0	0	3	0	17
	Ekai	0	0	1	0	0	0	0	0	3
	Zuhatzu	0	4	0	0	0	0	0	1	7
	Satrustegi	0	1	0	0	0	0	4	0	6
	Hiriberri A.	1	0	0	1	0	0	2	0	11
	Ihabar	0	5	0	2	1	0	1	0	18
Irañeta		0	0	0	4	5	0	1	6	25
Uhartea A.		1	2	0	14	25	18	15	4	112
Arruazu		0	1	2	0	1	0	0	0	9
Lakuntza		5	3	19	64	44	9	14	2	207
Arbizu		5	9	11	63	18	1	9	9	192
Ergoiena		0	1	4	12	9	0	10	1	48
	Unanu	0	0	0	5	0	0	0	0	6
	Dorrao	0	0	4	1	5	0	2	0	15
	Lizarraga	0	1	0	6	4	0	8	1	27
Etxarri A.		19	14	23	138	74	10	26	22	484
	Etxarri A.	19	14	23	137	73	10	26	22	479
	Lizarragabengoa	0	0	0	1	1	0	0	0	5
Bakaiku		0	4	4	9	11	1	2	3	40
Iturmendi		20	0	5	11	1	0	3	11	68
Urdiain		5	17	34	30	2	0	1	0	155
Altsasu		29	50	53	153	50	17	49	84	937
Olatzi		6	14	7	18	8	1	26	39	176
Ziordia		3	10	1	1	2	0	4	0	38
Guztira:		113	148	170	568	256	57	235	199	2.916

ITURRIA: OSASUNBIDEA



Altsasuko Burunda pilotalekua txertaketa gune bihurtuta. ARTXIBOIA

Erritmo onean ari dira kontsumo bonoak banatzen Altsasun

Altsasuko Udalak eta Altsasuko Dendarien Elkarrekin sustatu dituzte herrian kontsumitzeko txartelak. Bonoak eskuratzeko nortasun agiriarekin joan behar da Iortia kultur gunera; irailaren 24ra arte banatuko dituzte, 09:00etatik 13:00etara. 40 euroko erosketagatik 30 pagatzeko aukera ematen du bonuak. 47 establezimenduk bat egin dute.



Jendea bonoa eskuratzeko zain.

xapatero
taberna
Etxeko kroketak
eta bokatak
948 460 162 · Etxarri Aranatz

Zure edari banatzailea!

Hijos de Goikoetxea
Tel. 948 467 317 · 998 979 279 · Geltoki auzoa 11 · ALTSASU

KOLABORAZIOA

Baskonia, basokoena?

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

Baskoniako Dukerria (baita *Waskonia* eta geroago *Gaskoiniako dukerria* ere) VII. mendean frankoen marka bezala sortu zuten Euskal Herriko historia liburuen arabera eta Akitaniako mugetan baskoiak (*Vascones*) kontrolpean izateko sortu omen zuten aipatu frankoek. Antzinako *Novempopulania* izeneko probintzia erromatarra eta Iruña inguruko eskualdea ere barnean hartu zituela dirudi. Garona ibaia iparraldetik, Iruñaldea hegoalde, egungo Cantabria mendebaldetik eta Huescako ekialdea eguzkialdetik, gutxi gorabehera izanen ziren bere mugak, hau da, Bisigodoen Erresuma hegoaldean eta Akitaniako Dukerria iparraldean.

Estrabon geografo greziarrak "la nacion de los vascones" aipatu zuen *Geographia* obran eta garbi dago horixe izan daitekeela definizioetako bat Baskonia izenarendako.

R.A.E.-n, zalantzarik gabe: "vascón, na: (Del latín

Vascones) adj. Natural de la Vasconia, región de la España Tarraconense. 2. Perteneciente o relativo a esta región."

Bestalde, Euskaltzaindiaren Onomastikako Batzordearen txostenean esaten da Euskal Herria dela Vasconia izenaren euskarazko kidea. Eta Euskaltzaindiaren Hiztegian, *baskoi*, *eusko* eta *euskotar* ageri zaizkigu azalduta.

Izen eta izenondo hauen kontsonantei erreparatuz gero, berehala ikusten da funtsean berberak erabiltzen dituztela, bai gaztelaniak, bai euskarak: *basko/vasco/eusko* (b/v/u, s eta c/k). Jatorri bakarraren seinale, seguruenik. *Primitivos Pobladores de España y Lengua Vasca* (Humboldt, 1959, 68) liburuan dakarren ildotik jarraituz, hona horien jatorria eta bilakabidea:

basoko + *-(e)nea* (basokoen etxea, lurra, eremua)
basoko > *basko* (sinkopa)
basko + *-nea* → **baskonea* → *baskonia* (disimilazioa)

Mitxelena hizkuntzalariak (A.V., 1989, 83-84) honela azaldu zuen lehen urratseko bigarren osagaia: "*-enea*", "*-renea*" var.



Del anterior ('-ena' atzizkiari da). La forma '-(r)enea' parece haber sido rehecha a partir del locativo sobre todo, y de los otros casos locales: De 'Errandon-ean', '-etik' etc., <en, de la [casa] de Fernando>, se ha sacado un nominativo determinado 'Errandonea', en vez de '*Errandon-a':

'Apaizenea', 'Bortchenea', 'Garchotenea', 'Sansinenea' (cf. 'Sansinena'); 'Hachiarena' (...)

Ondoren sinkopa, eta bilakabideko azken urratsa, disimilazioarena, ohikoa dugu Euskal Herriko hainbat hizkeretan, hala nola Sakanako Arbizukoan, Unanukoan, Dorraokoan eta Arruazukoan, esate baterako: *luze* + *-a* > *luzjã*, *ume* + *-a* > *umjã*, *urte* + *-a* > *urrjã*, *logane* + *-a* > *loganjã* (logalea)...

Lehen bilakabide honen emaitzatik abiatuz, ez da zaila batera kontsonantekide diren gainerakoak ondorioztatzea:

basko > *vasko* (grafia aldaketa)
vasko > *uasko* (grafia aldaketa, atzera berriz)
uasko > *ausko* (metatesia)
ausko > *eusko* (diptongo itxiera)

Ohikoak dira dokumentu zaharretan b/v txandaketak eta baita horiek biak /u/ bokal itxiarekin burutzen dituztenak ere. Adibide moduan, Mitxelena (1989, 13) aipatzen duena: "(...) *Es inútil hacer suposiciones ingeniosas para*

explicar. P. ej., Goizueta cuando un documento de la segunda mitad del siglo XII nos da la forma Goizuuieta; (...)"

Pertsona izenetan ere, *Johan d'Arruicu* eta *Peru Garcia de Çauala*, 1350 urteko etxarriarrak ditugu. Egun, bistan da, *Arbizu* eta *Zabala* idatziko genituzkeen (b > v > u bilakabidea seguruenik).

Bilakabideko hirugarren urratseko metatesia konfirmatza datorke, bestalde, *Philippe Lartiguek* (2017, 4) *Provincia Novempopulana*-ko (K. o. V. mendea) hamabi hiriko zerrendan, seigarrena, "*Elimberri, Augusta Auscorum, Auch (Auscii)*", dela dionean. Bestela ere, hortxe ditugu egun oraindik bizirik zenbait hizkeretan, Etxarri Aranazkoan esate baterako, *auri* (euri), *auli* (euli), *autzi* (<e>utzi) eta *auskias* (euskaraz) ere bai. Azken honekin, gainera, laugarren urratsa ere argiturik geratuko litzateke.

Eta bilakide honetako bigarren urratsak ere, beste emaitza izan zuela pentsa daiteke puntu honen hasieran aipatzen nituen *Waskonia* eta *Gaskoinia* koronimoen kasuan:

vasko > *wasko* (grafia aldaketa)
wasko > *gasko* (grafia aldaketa)

Caro Barojak (1985, 136-137) ere, harremanetan jartzen

ditu "ausci" izena eta "eusk-" osagaia, aipatu ondoren zein autorek erabiltzen duen "ausci" izena: *Ausci* (Cesar, De Bello Gallico), *Auskion* (Estrabon), "*Aquitanorum clarissimi sunt Ausci*" eta "*in Auscis Eliumberrum*" (Mela), *Ausci* (Plinio), *auskioi* (Ptolomeo), "*Novem populos Ausci comendant*" (Ammiano Marcelino).

Honelaxe dakar Caro Barojak lehentxeago aipatu dudana izen identifikazioa: "*Con frecuencia se ha relacionado el nombre 'ausci' con 'eusk-' para identificar a los que lo llevaban con los euscaros o 'euskaldunak'. Otras relaciones, más o menos lejanas, se establecen por vía parecida. Nunca del todo satisfactorias. El plural 'ausci', parece que debe corresponder a un singular 'auscus'.*"

Moret apezak (1766, I, 3-6-or.) ondorengo zioen "vasco" izenari buruz: "*Los navarros en lo antiguo se llamaron con el nombre de Vascones, que en su Idioma natural vale tanto como Montañeses, por ser Región frecuentemente montuosa. Y de la palabra Vaso, que significa monte, y el co del nombre pospuesto a su usanza, se dedujo Vasoco, que suena del Monte, y por contracción Vasco*".

Basokoak, beraz, euskaldunok, etimologia honen arabera. Egun basoak nonahi ditugu Euskal Herrian, baina ez da zalantzarik askoz ere hedadura zabalagoa izan zutela duela hamar, bost edo hiru mila urte basoek gurean. Baita erromatarrek bertaratu zirenean ere eta izen hauxe sorturik izanen zuten inolako dudarik gabe.

Basoko, mendialdeko edo "montañés", bestela esanda, egungo "eusko/vasco". Aurreko artikuluan nioen moduan, Nafarroako Erresumaren historiako zenbait errege ere, Nafarroakoak soilik izan baino lehen, "Nabarrako eta Mendialdeko Errege" (Rey de Navarra y de las Montañas) izan ziren eta naphar/nabar/nafar-en zein bas(o)koen errege zirela adierazten du titulu horrek.

DUELA 25 URTE...



IV. Nafarroako duatloia, Arbizun

Arbizuko Udalak honako proba prestatu zuen: 7 km-ko ibilbidea korrika osatzea, 32 km bizikleta gainean, eta, bukatzeko, 3,5 km korrika. Guztira 42,5 km osatu zituzten 68 parte hartzaileek. Haien artean Eugenio Ondarra, Josu Diaz eta Jesus Larrion olaztiarrak eta Sebastian Insausti arbizuarra zeuden. Helmugan lehenak Amador Galbe (1:29:26) eta Maria Angeles Iturralde (2:02:30). Nafarroako txapela azken horrek eta Andres Markinezek jantzi zuten.

Garaira egokitutako Artzain Eguna

Artzaintzari balioa aitortzeko ospakizunaren 53. edizioa ospatu zen igandean. Goizean gazta txapelketaren 40. edizioa jokatu zen. Arratsaldean, berriz, 53. Nafarroako artzain-txakur txapelketa jokatu zen

UHARTE ARAKIL

Joan den urteko etenaren ondoren, Aralar Mendi elkarteak Artzain Egunaren bertsiio mugatua antolatu zuen. Gazta txapelketa Larrabieta frontoian jokatu zen. 23 gazta aurkeztu ziren eta epaileek Urdazubiko Etxalekua gaztandegiari eman zioten txapela. Lehen hamabi sailkatuen artean Sakanako hiru gaztandegi zeuden: 6. Albi, 10. Balda Artola eta 12. Patxi Amillano.

Arratsaldean, berriz, Geinbera zelaia LIII. Nafarroako artzain-txakur txapelketa hartu zuen arratsaldean. Sei artzainek parte hartu zuten zazpi txaku-

rrekin. Lehen kanporaketa proba jokatu hiru artzain izan ziren finalera pasa zirenak: Jesus Razkin, Aritz Ganboa eta Jorge Oteiza. Bigarren proban artaldea sarean sartzea azken biek lortu zuten, baina Oronozko artzainaren Lagun txakurak lanak lehengo despiditu zituen eta horrek eman zion txapela. Uharthe Arakilen Oteizak lortu duen hirugarrena, 2001ean eta 2002an ere txapelidun izan baitzen. Arbaizurrak bigarren postuaz aparte jantzi onenaren artzainaren saria eskuratu zuen. Bai Oteizak bai Ganboak Nafarroa ordezkatu dute Euskal Herriko txapelketan, Garain, irailaren 17an.



Jone Bengoetxea txapelarekin. M. ARREGI

Adinekoendako udalaren eta klinikaren ikastaroa

Autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko programa da, 70 urtetik gorakoei zuzenduta

ALTSASU

Altsasuko Udalak, Josefina Arregi klinikaren psikogeriatrikoaren laguntzarekin, ariketa fisikoko *Altsasu mugitzen da* programa pilotua antolatu du. Altsasun erroldatuta dauden 70 urtetik gorako pertsona guztiei zuzenduta dago. Autonomoak izanik, beren eginkizunetako batzuk galtzen ari badira eta, horregatik, oinez ibiltzeko makila edo ibilgailua erabili behar badute, ahul sentitzen badira, edo erorikoen beldur diren altsasuarrei zuzenduta dago.

Adinekoen autonomia sustatzeko eta mendekotasuna prebenitzeko udalaren zerbitzu berria irailaren 15etik azaroaren 5era garatuko da. Udalak jakinarazi duenez, "taldeko jarduera bat da, Josefina Arregi klinikako fisioterapeuta batek zuzendua. Ariketa fisikoak egingen dira,

gorputzeko atal ahulagoak indartzeko".

Izena emateko kiroldegira edo klinikara hots egin behar da, 948 562 786 edo 948 563 850 telefonotara. Bestela, bi tokietako batetik pasa eta han bertan eman daiteke izena. Horretarako epea astelehenean despidituko da. Izena eman ondoren, galdutako edo gehien hondatutako funtzionalitateak baloratuko dira, eta bi talde egin ahal izango dira, izena eman duten pertsonen narriadura mailaren arabera. Balorazioa egin ondoren, izena eman duten pertsonen 15 euroko ordainketa egin beharko dute. Programa Burunda pilotalekuan izanen da astelehen eta asteazkenetan. Lehen taldea 10:00etatik 11:15era ariko da eta bigarrena, berriz, 11:30etik 12:45era. Nafarroako Gobernuak finantzatutako programa da.

Udako ARGAZKI LEHIAKETA


www.guaixe.eus

1. Saria:

Bergarako Lamaño Etxeberri Landetxean 2 gau bi lagunentzat (irailetik urtea bukatu arte disfrutatzeko) eta argazki irabazlea aluminiuzko marko handi batean inprimatzea, Meraki N.S. argazkilaritzaren eskutik.

2. Saria:

Lakuntzako Tximonena jatetxean bi lagunentzako otordua (irailetik urtea bukatu arteko epea) eta Halcón Viajesen eskutik 50€ko opari txartela (2 urteko iraupena).



Koskobilo II, iraganerako atea

Olatzagutian lezea opatu eta arkeologia indusketa egin du Aranzadi Zientzia Elkartek. Lehen hipotesiaren arabera, duela 5.000 urte hildakoak lurperatzeko erabiliko zen lezea. Koskobilo leko hondakindegian ere lanean aritu dira

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologo taldea Koskobilon egon da azken hiru asteetan. Hamar lagunek osatu dute taldea. Aurtan han egin beharreko lanak despeditzear dituzte. Lantaldere buru Dani Ruiz Gonzalez da, elkarteko historiaurreko saileko ikerlaria eta Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) aurre doktorego kontratua duena. Koskobilorekiko interesaren zergatia azaldu du Ruizek: "Koskobilo, berez, oso aztarnategi ezaguna da euskal historiografian. Baina ez zegoen zientzia ikerketarik egin. Mikel Markotegi prospekziogile etxarriarrak hona bisitan ekarri gintuen 2019an. Eta aukera ikusi genuen hemen ikerketa proiektu bat martxan jartzeko, eta Olatzagutiari eta inguruari nolabaiteko arkeologia bizia emateko".

Ruizek gogoratu duenez, Koskobilon arkeologia aztarnak zi-

tuen leze bat zegoen. "1940tik ezaguna da. Maximo Ruiz de Gaona ikerlariak lezea suntsitu aurretik arkeologia material ugari jaso zituen, batez ere fauna hezurak. Gerora, baita suharrak eta duela 20.000 urte suharriz egindako erreminta ugari ere. Harrez geroztik oso ezaguna da Koskobiloko hondakindegia", zehaztu du Aranzadiko kideak. Izan ere, harrobia handitu ahal lezea suntsitu zuten eta barruan zuen lurra, mendi magalean bota zuten, hondakindegia. Arkeologia material pila dago mendi magalean, baina guztia nahasia dago, testuinguruz kanpo, ez dago bere lur mailan, eta, beraz, arkeologoei informazio gutxi ematen diete aztarna horiek.

Arkeologia ikerketa egiteko lezea behar zuten, "materialak bere tokian egonen ziren toki bat behar genuen. Eta Markotegik hori erakutsi zigun: suntsitutako lezearen ondoan badago

beste bat, goraino sedimentuz estalia. Leze hori Koskobilori balioa emateko behar genuen argi izpia da". Leze horri Koskobilo II izena eman diote.

Lezeaz

Aztarnategian lanean egon diren artean unibertsitateko ikasleak, masterra egiten dutenak eta doktoregoa egina dutenak daude. Guztiak hiru esparrutan ibili dira lanean: lezea, hondakindegia edo Koskobilo I eta ingurua. "Lan garrantzitsua izan da inguruan prospekzioak egitea, jakiteko inguruan zer gauza dauzkagun: beste leze batzuk dauden, beste aztarnategi batzuk detektatu... Hori guztia egiten lana izan dugu", argitu du Ruizek, gaineratuz, "egunero ateratzen diren material guztiak garbitu, inbentariatu, siglatu eta argazkiak atera... Lan horiek egiteko ere laborategia muntatuta dugu eta horretan ere ari gara. Lan



Aranzadi zientzia elkartea arkeologia indusketa egiten ari da Koskobilo 2 lezean, kobazuloan.

pila. Batzuetan jende gutxiegi ere".

Hala ere, berritasuna lezea da, eta bertan egindako zundaketa. Ruizek gogoratu duenez, "Markotegik erakutsi zigunean sarreatxo bat ikusten zen, hiru metro zabal eta 20 cm-ko altuerakoa. Arrastaka pixka bat barrura sartu ginen eta, esku-argiarekin begiratuta, barrurantz 5 edo 7 metro artean eta 8 bat metroko zabalera zituela ikusi genuen. Pentsatu genuen izan zitekeela

kristoren leze polita garai batean jendea han bizitzeko, edo momentuan egiten zituzten aktibitateak egiteko".

Arkeologoen inurri lanarekin zundaketak behera egin du. "Bardirudi emaitzak, printzipioz, onak direla", esan du Aranzadi zientzia elkarteko kideak. Ruizek azaldu duenez, "lehen 70 cm-ak azkonarrak ibilitakoak dira, haiek jandako hezurak. Gainera, Jose Mari Bastarrika olaztiarrak esan zigun azkonarren leze bezala

"Pazientzia eduki beharreko lana da"

OLAIA GRANIZO CANDELAS HISTORIALARIA

Koskobilo II leze arkeologia indusketan altsasuarra eta olaztiarra izan dira. Lehenak bere esperientziaren berri eman du.

Zergatik zaude zu hemen?

Txikitatik nahi izan dut arkeologian aritu. Gasteizen Historia ikasi nuen. Joan den urtean karrera bukatu nuen. Duela bi urte hasi nintzen Aranzadi zientzia elkartekoekin, Dani Ruiz Gonzalezekin harremana izan nuen. Altsasuarra naizenez, Koskobilo 2ko indusketan parte hartu nahi nuen galdetu zidan, eta, jakina, baiezkoa eman nion.

Zergatik arkeologia? Zergatik historia?

Egia esan, ez dakit. Etxean beti egon da grina hori. Amari ere pila gustatzen zaio.

Txikitatik, jakin-mina. Beharbada, gehienbat egiptologiagatik. Nik uste karrera horretan sartzen garen guztiak edo horregatik, edo paleontologiagatik sartzen garela.

Zer? Imajinatu behar zaitut munduko haitzulo guztiak amarekin bisitatzen?

Ez. Ama gehiago da eraikinen eta halakoen zale. Hasiera batean, erromatarren garaia, edo egiptologia gustukoago nuen. Baina ikasketekin historiaurrea, haitzuloen kontua, ezagutzen hasi nintzen eta esan nuen: hau ere gustatzen zait!

Iristen da momentu bat Historia gutzitik zati bat aukeratu behar duzuna?

Gero irakasle izan nahi baduzu, ez da beharrezkoa. Baina denok dugu gustuko garai bat, edo bi. Ikerketarako gomendagarria da batean zentratzea, metodologiak desberdinak direlako. Ikerketarako gustuko garaia izan behar duzu. Niri historiaurrea orokorrean gehien gustatzen zaidan garaia da, baita antzinaroa ere.

Arkeologoak lanean ikustea nahiko hipnotikoa da.

Askotan esaten digute aitona-amonak obrak ikustera joaten diren bezala, guri lanean begira jendea hipnotizatuta bezala begira gelditzen dela. Ni indusketa lanen ondoan

baldin banago fitxaren bat egiten, begiratzean, erlaxatu bezala egiten naiz. Zerbait oso metodikoa da, pazientzia eduki beharreko lana da. Baina ez da beti labanarekin ibili behar. Batzuetan aitzur txikitxoak sartzen ditugu. Baina hori garaia araberaz izaten da.

Labanarekin, brotxarekin ikusi zaituztet. Lurra bahetzea tokatzen zaizue?

Askotan. Historiaurre oso-oso zaharrea labanarekin eta brotxarekin ibili beharra dago. Baina zenbat eta berriagoa izan historia, orduan eta erreminta handiagoak sartzen dira. Esaterako, erromatar garaian eta Erdi Aroan pikotxarekin, edo aitzurrarekin. Zerbait berezia sortzen bada, erreminta fina erabiltzen da.

Martxa horretan indusketan behera eta aurrera egitea kostatu egiten da!



ezagutu zutela beti". Lehen lur geruza hori kenduta, "hildakoen hezurak, suharriak eta zeramika zatiak opatzen hasi gara" azaldu du ikerlariak. Zehaztu duenez, "ez dira hondakindegian opatutakoak bezain zaharrak, baina badirudi, duela 5.000 urte nekazari eta abeltzain ziren hemengo biztanleen ehorzketa lezea dela. Badirudi beraien hildakoak leze honetara ekartzen zituztela lur emateko". Ruizek gaineratu duenez, "hemen lurperatu zituz-

tenek, ziurrenik izanen zituzten larreak, soroak... Landuko zituzten hemen garia-eta".

Handik ez oso urrun Ornako despopulatu zegoen, eta inguru horretan pertsonen presentzia aspaldikoa izan da. "Ez hori bakarrik. Urbanan bertan Urbasa-ko suharria dugu. Hori izanen zen bere garaian biztanle hauen dako oso garrantzitsua. Suharriz beraien eguneroko tresnak egiteko baliabide nagusia: lantza puntak eta labanak egiteko, larra-

lantzeko, paretetan grabatuak egiteko... Beraz, Olatzagutia, garai hartatik, suharriekin edo mineralekin lotutako gune oso garrantzitsu bat zen. Ziurrena, hasieratik, lehenengo biztanleak, orain dela 50.000 urte baino gehiago, etorriko ziren horren bila eta hori denboran zehar mantenduko zen. Hemen historia oso luze bat daukagu", azaldu du Ruizek.

Egiteko asko dutenez, lezeak informazioa ematen segituko duela esan du Aranzadikoak: "bost metro karratutan 1,3 metro jaitsi dugu. Orain Neolito garaian gaude, baina hortik behera gauza are zaharragoak egonen dira; hala uste dut". Eta opatzen dituzten guztiak bere testuinguruan egonen dira, beraz, askoz ere informazio gehiago jasoko dute arkeologoen lezean lanean.

Hondakindegia

Arkeologoen hirugarren lan eremua hondakindegia izan da, harrobiak suntsitu zuen Koskobilo Ilezea. Ruizek azaldu duenez, "harrobiak aurrera egin ahala hondoarekin topo egiten zuten, material batzuk agertuko ziren eta horiek atera eta hondakindegia batera botatzen hasi ziren. Material gehienak lezearen ahotik atera zituzten. Mendi magalean daude orain, kono forma dute. 30 bat metro luze eta erdian egindako zundaketan 1,8 metroko sakonera du". Han halakoak opatu daitezke: leze zatiak, hezurak, suharriak... "Lezean zegoen material ugari dago hor; denetarik", ziurtatu du Aranzadikoak.

Hura ezaugarritzeko bost zundaketa egin dituzte, jakiteko zer sakonera duen, nondik nora zabalitzen den eta materialen dispersioan logikarik dagoen. "Hau da, beheko maila batean material zaharrena dagoen, gorago besteak..." esan du Ruizek eta emaitzak izan dituzte: "hainbat material berreskuratu ditugu, tartean, hezur eta fauna hezurak (500dik gora) eta mila suharri tresna baino gehiago". Horiek aztertu egin beharko dituzte. Opatutako hezurak identifikatzeko paleontologoen elkarlanean ariko dira. "Balio digute hondakindegia berritara balioa emateko, eta zientzia ikerketaren bitartez ezagutzera emateko".

Lezean opatutako aztarnen garaikideak direnak hondakindegian opatuz gero, azken horiei testuingurua emateko aukera lukete arkeologoen. "Lezeak hain gertu egonda, suposatzea da batean pertsonak bazeuden, bestean ere baleudekeela".

EHUko Asier Gomez Olivencia eta Mikel Arlegi paleontologoen aztertu dituzte Ruiz de Gaonak eta gerora jasotako arkeologia materialak. Asteartean Olatzagutian izan ziren biak, Aranzadikoekin elkarlanean ari baitira. Beste hainbat ikerlariarekin ere saretze lana egiten dute, "elkarlan horrek aberasten duelako eskuratzen dugun informazioa" ziurtatu Ruizek.

Aranzadikoek Koskobilo IIko arkeologia indusketako plangintza 2019an egin zuten, 2020an hasteko. "Pandemiarekin kanpaina oso mugatua egin genuen,

lehen hurbilketa. Aurtengoa kanpaina potenteagoa izan da", azaldu du Ruizek. Eta arkeologoen lanak etorkizunean segida izanen duela ziurtatu du Ruizek, "lezeak luzerako jokoa emanen duelako". Horrekin batera, ikerlariak gogorarazi duenez, "ondare publikoarekin ari gara lanean. Aranzadiren helburua beti izan da ateratzen ditugun gauzak berriro herriari bueltatzea, herriak bere ondarea ezagutu eta babes-teko. Horregatik, zertan ari garen kontatzeko hitzaldiak eman ditugu eta bisita gidatuak antolatuta ditugu". Azken horiek atzo egitekoak ziren, baina eguraldiagatik bertan behera gelditu ziren. Hala ere bisitak eta kanpainaren lehen emaitzen berri emateko hitzaldia seguruenik lastailean izango direla aurreratu du.

Azkenik, Ruizek eskertu du hasieratik alkatetzatik eta udaletik hainbat alorretan jasotako babesa, eta azpimarratu du ikerkuntza eta difusio proiektuarekin duten konpromisoa. Esker ona azaldu die ere haiengana gerturatu diren eta beti laguntzeko prest izan diren olaztiarrei eta, orokorrean, herriari jasotako harrera ona izan dela esan du. "Arkeologia emaitzak bezain pozgarriak dira guretako proiektuak herriari jaso duen harrera ezin hobea eta herritar ugarirengan piztutako jakin-mina eta izandako inplikazioa. Hamaika pertsonen izenak etortzen zaizkit burura, ezin guztiak hemen aipatu, baina, bai, aprobeixatu nahi dut guztiei eskerrak emateko".

Bai, erreminta finarekin bai. Joan den astean erreminta finekin hasi ginen eta 10 cm jaisteko aste eta erdi eman ditugu. Pazientzia. Eta pixkanaka, presarik gabe aritu behar.

Eta ikusten duzunean zerbaitek itxuraren bat duela, zer sentitzen da?

Argi duzunean zer den eta zerbait ikusgarria denean, ematen dizu...

Kaka, suharri bat!

Suharriaren arabera! Beharbada saltoka hasten zara! Baina ez badakizu zer den, zer ote den galdezka gelditzen zara.

Giza aztarnak opatu dituzue. Pozgarria izanen zen hori, ez?

Oso arkeologo gutxi esan dezakete giza aztarnak aurkitu dituztela.

Halakoetarako xanpaina freskatzen izaten duzue?



Aurten ez. Baina zerbait oso-oso arraroa ateratzen bada, ospatzera joaten gara.

Aurkikuntza pozgarria izaten dela esan duzu. Baina lanean segitu beharra dago.

Mundu guztia gelditu eta pieza ikustera gerturatu den momentua izaten da. Zuzendariak ordena pixka bat jarri behar du: "benga, guztiak lanera! Gero ikusiko duzue!"

Pieza bat lurretik azaleratu ondoren, zer egiten da harekin?

Piezarekin argazkia ateratzen dizute, zu poz-pozik agertzen zarenean. Ondoren, poltsa batean gorde egiten da, bere siglarekin. Estazio totalarekin erreferentziatu egiten da, topografia programa batekin planoan kokatzeko. Ondoren laborategi lanak hasten dira. Denaren arabera siglatu, inbentariatu eta halakoak.

Aurkitu duenaren izenarekin aztarnak batailatzen dira?

Ez, baina batzuetan izen txikiak jartzen dira, bai.

Zer moduzko esperientzia da?

Oso-oso ona. Jendearekin denbora pila pasatzen dugu eta familia txikitxo bat sortu dugu.

Jakintza desberdinetako jendea zabilzate?

Aurten denak historialariak gara. Taldekide bat daukagu filologo klasikoa. Beste indusketa batzuetan arkitektoak eta etortzen dira. Denetarik. Askotan boluntarioa denez, gustuko duen jendea etortzen da.

Indusketa bukatu eta gero, zer?

Lanean segitu eta, ondoren, Santanderrera master bat egitera joanen naiz. Trebatzen segitu, lanean jarraitzeko.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

LARUNBATA 4

IZURDIAGA Sakanako Agroekologia eskola: Bertako barietateak. Udako zaintza fruitugintza ekologikoan. Kurtso teoriko-praktikoa: Lurra, ongarria, udako inausketa eta txertatzeak.
Irakaslea: Carlos Gil.
09:30ean, *elkartean*.

LAKUNTZA Aralar mendi magikoa bisita gidatua. Eduka Naturaren eskutik.
Sakanako Garapen Agentziak, Aralar elkarteak eta Plazaola

turismo patzuergoak antolatuta.
09:30ean, *Guardetxeko aparkalekuan*.

ALTSASU Bargagaingo igoera.
Antolatzailea: Dantzaleku Sakana Atletismo Kluba.
10:00etan, *plazatik*.

ALTSASU Toda una vida. Memorias de un obrero internacionalista David Cacchioneren liburuaen aurkezpena.
12:00etan, *gaztetxean*.

UHARTE ARAKIL Beriainera igoera Iker Karrerarekin.

16:00etan, *Trail Estazioetik*.

IZURDIAGA Sakanako Agroekologia eskola: Bertako barietateak. Udako zaintza fruitugintza ekologikoan. Arakilgo aranondo txertaketa eta Zaintza Sareari banaketa.
Irakaslea: Carlos Gil.
16:30ean, *elkartean*.

ALTSASU Nafarroako XX. Zirko Jaialdia. Tefi de Paz konpainiaren La reina del Arga.
19:00etan, *Baratzekobiden*.

OLAZTI Bihotx taldearen Norabide guztiak musika eta dantza ikuskizuna.
19:00etan, *eguraldi onarekin Memoria historikoaren parkean, eguraldi txarrarekin frontoian*.

UHARTE ARAKIL Iker Karreraren Cabeza de Carrera liburuaen aurkezpena eta proiektzioa.
Edukiera mugatua, iritsitako hurrenkeran.
19:30ean, *udaletxean*.

ALTSASU Nafarroako XX. Zirko Jaialdia. La Glo Circo konpainiaren Sacred.
22:00etan, *lortia zabalgunean*.

UHARTE ARAKIL Izarren behaketa, astronomia tailerra. Observar el Cieloren eskutik.
Sakanako Garapen Agentziak, Aralar elkarteak eta Plazaola turismo patzuergoak antolatuta.
22:30ean, *Aralarko santutegian*.

IGANDEA 5

UHARTE ARAKIL Bisita gidatua: Aralarko arkuek (harrizko etxola tradizionalak) eta begiratokiak Miruaren eskutik.
09:45ean, *Aralarko santutegitik*.

OLAZTI Otsaportillo. Oroimenaren



ARTXIBOA

IRURTZUN Irurtzungo erraldoien erakusketa. Antolatzailea: Irurtzungo Erraldoi eta buruhandiak.
Irailaren 3tik 5era. Ostiralean 18:00etatik 20:00etara, larunbatean eta igandean 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.
Udaletxearen atzekaldean dagoen Erraldoien bajaran.

alde omenaldi ekitaldia.

Antolatzaileak: Irurtzungo eta Arakilgo Udalak.
12:30ean, *Otsaportilloko oroigarrian*.

ALTSASU Altsasuko erraldoien emanaldia.
17:30ean, *lortia zabalgunean*.

ALTSASU La banda del Jefe Bigun taldearen kontzertua.
20:00etan, *lortia zabalgunean*.

ASTELEHENA 6


ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea.
12:00etan, *Zumalakarregi plazan*.

OSTEGUNA 9


EGIARRETA Arakilgo bertako barietateen gidaren aurkezpena Oihana Olaberria, Nerea Viana eta Ester Monteroren eskutik.
Ondoren, eztabaida parte hartzaileekin.
18:00etan, *Itxasperrin*.

EGURALDIA ASTEBURUAN


Ostirala, 18




Larunbata, 19



Igandea, 20



Astelehena, 21



Bazkide Zozketa

1. SARIA

LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a

2. eta 3. SARIAK

LACTURALE: Esneki lotea
GUAIXE FUNDAZIOA: 25 urteen kit-a



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Paulo Zabala Arratibel**

1950/01/19 - 2021/08/09



"Egunak hobeak ziren zurekin batera"

Familiak egun hauetan jasotako babesa eta maitasuna eskertu nahi du.

Etxekoak

ESKELA

**María Teresa Zabaleta Seguin**

(Urbano Goikoetxea Fernandez-en alarguna)

Iruñean hil zen 2021eko abuztuaren 29an, 80 urte zituela

—Goian bego—

Seme-alabek; Joxe Jabier, Begoña eta Joxan Jaka; anai-arrebek, ezkon anai-arrebek, ilobek eta gainerako ahaideok eskerrak eman nahi dizkizuegu momentu latz hauetan gurekin egon zareten guztiei

Etxarri Aranatz

ESKELA

**Pello Goya Garcíandia**

—Goian bego—

(Iruñean hil zen 2021eko irailaren 1ean, 61 urte zituela)

Gurasoek, Benita Garcíandia eta Santos Goya (†); anaiek, Fernando eta Mari Jose Beloki, Jose Javier (†); ilebek, Maialen eta Rober, Aintzane; lehengusu-lehengusinek eta gainerako ahaideok gure esker ona adierazi nahi dizuegu gurekin egon zareten guztiei

Etxarri Aranatz

IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

Bakarriketa feminista

I.lehiaketa: Nafarroako Indarkeriaren Aurkako Plataforma antolatuta Azaroak 25 inguruan, umorearen bidez hain normalizatuak ditugun tratu txar egoera batzuk ikusarazteko, sentsibilizatzeko, ispilua jartzeko eta patriarkatuak jartzeko digun benda kentzeko. Oinarriak: Euskara edo gaztelaniaz, edozein adinetako emakumeek* parte har dezake, 10-15 minutuko iraupena izan behar du eta gidoia eta bideoa helbide honetara bidali behar da: <http://nomasviolenciasexista-mail.com> Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean amaitzen da. Sariak: irabazleak 200 euro, bigarrenak 150 euro eta hirugarrenak 100 euro. Guztiak azaroan publikoaren aurrean aurkeztuko dira. Animatu eta parte hartu!!

IKASTAROKAK

Altsasu mugitzen da helduendako ariketa fisiko programa: Autonomia sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko programa. Zailtasunak dituzten 70 urtetik gorakoentzat pentsatua. Ikastaroa irailaren 15etik azaroaren 5era arte izango da bi txandatan: 1.Talde 10:00etatik 11:15era eta 2.Talde 11:30tik 12:45era. Izen ematea irailaren 6ra arte, Altsasuko udal kiroldegian (948 562 786) edo Josefina Arregi klinikan (948 563 850). Prezioa 15

euro. Altsasuko Udalak Josefina Arregi klinikarekin lankidetzan sustatutako programa eta Nafarroako Gobernuak finantzatua.

Adinduendako ariketa fisikoko tailerra: Adindu hauskorren gainbehera funtzionala eta erorikoak prebenitzeko ariketa fisikoaren profesional batek gidatuta. Etxarri Osasun Zentroan ostiraletan, 16:00etan. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus webgunean.

Oinarriko gaitasun digitalak doako ikastaroa Irurtzun: Irailaren 20tik 24ra, goizeko 9:00etatik 14:15era. Kultur etxean. Informazioa eta izen ematea 948 600 412 tfnoan.

OHARRAK

Odol emateak Etxarri Aranatz: Irailaren 8ean, 17:00etatik 20:30ra.

Lakuntzan Euskara ikasteko dirulaguntzak: Lakuntzan erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen zuzendua. Deialdiko oinarriak eta aurkeztu beharrek dokumentazioa udal bulegoetan daude eskura eta eskariak Lakuntzako Udalaren erregistroan aurkeztu behar dira irailaren 30a baino lehen. Informazio osoa www.lakuntza.eus web orrian eta Udaletxean.

Nekazaritzako Ibilgailuen Azterketa Teknikoa IAT Sakanan herriz herri: Irailak 6, 7 eta 8 Uharte Aralkilen / Irailak 9 Arbizon / Irailak 10 Li-

zarragan / Irailak 13 Unanun / Irailak 14 eta 15 Etxarri Aranatz / Irailak 16 eta 17 Iturmendin / Irailak 20 eta 21 Altsasun / Irailak 22 Olaztin / Irailak 23 Ziordian. Herri guztietan ordutegi bera izango dute, 10:00etatik 14:30ra.

Irurtzun 0-3 eskolatarako dirulaguntza: haurrak Haur Eskoletara eramateagatik bateragarritasuna sustatzeko dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago irailaren 30era arte. Baldintzak eta aurkeztu behar diren dokumentuei buruzko informazioa udal webgunean www.irurtzun.eus eta Udaletxean daude.

ETB1en "Zurekin Bat" lehiaketa berria: Galdera-erantzunak formatuko saioa izango da. Lau kideko bi talde arituko dira lehiari nor bere ametsa betetzeko asmoz. Egune-ro jokoan dauden 800 euroak irabazi eta programaren zaku potoloa eramatea izango da. Taldekideek (familia, koadrila, lankideak, pisukideak, kirolari taldeko kideak...) haien jakituria neurtzeko aukera izango dute. Lehiaketa astelehenetik ostegunera izango da ikusgai. Izena emateko deitu 618 553 423 edo idatzi zurekinbat@k2000.com helbidera. Animatu eta ez galdu izena emateko aukera!

iragarki@guaixe.euswww.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Oier Casteig Arruti**, uztailaren 15ean Irurtzunen
- **Harri Otamendi Pelaez**, abuztuaren 1ean Altsasun
- **Nur Maiza Karasatorre**, abuztuaren 3an Etxarri Aranatz
- **Maren Yeregui Costa**, abuztuaren 12an Altsasun
- **Izaro Lopez de Sabando Vidal**, abuztuaren 12an Altsasun
- **Enzo Ortiz Acosta**, abuztuaren 24an Altsasun
- **Aiur Aizpun Reparaz**, abuztuaren 25ean Arruazun
- **Arij Essobai**, abuztuaren 29an Altsasun
- **Maia Carolina Gastaminza Chong**, abuztuaren 28an Altsasun

HERIOTZAK

- **Jose Caro Guerra**, abuztuaren 2an Altsasun
- **Segundo Moreno Irisarri**, abuztuaren 3an Iturmendin
- **Miguel Borreguero Gonzalez**, abuztuaren 4an Altsasun
- **Jose Mazkiaran Iturrioz**, abuztuaren 7an Altsasun
- **Paulo Zabala Arratibel**, abuztuaren 8an Etxarri Aranatz
- **Jose Maria Goiena Barandalla**, abuztuaren 13an Altsasun
- **Maria Eleuteria Cibrian Muñoz**, abuztuaren 13an Etxarri Aranatz
- **Carmina Diaz Ruiz**, abuztuaren 20an Altsasun
- **Basilía Lopez Aseginolaza**, abuztuaren 21ean Iturmendin
- **Pedro Ruiz Quintana**, abuztuaren 28an Altsasun
- **María Teresa Zabaleta Seguin**, abuztuaren 29an Etxarri Aranatz
- **Pello Goya Garcíandia**, irailaren 1ean Etxarri Aranatz

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskolak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZA barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



2019ko emakumezkoen Altsasu erregionala, Dantzalekuko aurkezpenean. Iazko etenaldiaren ostean, taldea itzuliko da, aldaketekin.

Futbolaren itzulera, albiste oso onekin

FUTBOLA Lagun Arteak ligari ekin dio, eta aurki hasiko dira gainontzeko talde sakandarrak. Iazko geldialdiaren ondoren Preferente mailan bueltan da Etxarri Aranatz, eta emakumezkoen 1. Maila Autonomikoko Altsasu taldea ere berpiztu da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Futbola bueltan da. Noizbait joan bazen. Pandemia dela eta, joan zen denboraldia, 2020/2021, 2020an hasi beharrean 2021ean hasi zen, oso berandu, eta, jakina, berandu despeditu zen. Baina badirudi nolabaiteko normaltasunera bueltatzen ari garela eta Nafarroako Futbol Federazioak araututako txapelketak ohiko moduan hasiko dira. Beraz, gure futbolarietako atseden hartzeko ez dute beta gehiegirik izan.

1. Maila Autonomikoan lehiatzen den Lagun Artea izan da 2021/2022 denboraldi berriari ekin dion lehen talde sakandarra. Lakuntzarrek aurreko asteburuan ekin zioten ligari, Azagran, eta sentsazio onekin itzuli ziren Azagratik. Peña Azagresa 3. mailatik jaitsi berri den taldea dela kontuan hartuta, maila hobekoa, beraz, itxura oso ona eman zuen Lagun Arteak. Javier Izkok zuzentzen duen taldea oso serio aritu zen, defentsan sendoa, eta kontrako atean arriskua sortu

zuen. Partidan barna behetik gora egin zuen Peña Azagresak, baina Lagun Arteak ongi eutsi zion eta husnako berdinketarekin despeditu zen lehia. Arerio arriskutsu baten zelatik puntu bat ekartzea ez dago batere gaizki.

Igandean Aluvion Zelai Berrin

1. Maila Autonomikoko 1. multzoko lider Lagunak taldea da (3 puntu) eta Lagun Artea 5. postuan dago (puntu 1). Igandean bere zaleen aurrean jokatu du Lagun Arteak, Zelai Berrin, eta sailkapenean 3. den Aluvion taldea hartuko du, 17:00etan.

Etxarri Aranatz bueltan

Preferente mailako 2021/2022 liga irailaren bigarren asteburuan hasiko da. Pandemia dela eta aurreko ikasturtean ligan aritzeari uko egin eta gero, aurten bueltatzea erabaki du Etxarri Aranatzek. Preferente mailako lehen multzoan lehiatuko dira etxarriarrak, honako taldeekin: Injerto, Amaia, San Andres, Ami-

go, Lagunak B, San Jorge, Aibares, Bidezarra B, Ilunberri, Ondalan, Beriain, Arrotxapea, San Miguel, Lezkairu, Ardoi B, Arenas eta Itaroa Huarte B. Urtebete pasa gelditi egon eta gero, gogotsu ekingo diote ligari etxarriarrek.

Altsasu prestatzen

Erregional mailan ere iraileko 2. asteburuan ekingo zaio txapelketari. Altsasu da kategoria horretan izango dugun ordezkaria. Erregional mailako 3. multzoan jokatu du Altsasuk, honako taldeekin batera: Berriozar, Asdefor, Amaya B, Gazte Berriak Antsoain, San Fermin ikastola, Doneztebe, Beti Kozkor, Arrotxapea B,

AURTENGO DENBORALDIAN SAKANAKO TALDE GUZTIEK EHINGO DIOTE 21/22 LIGARI

Aranguren, Iruña B, Leitzako Aurrera eta Baztan.

Altsasuko nesken itzulera

Emakumezkoen Altsasu talde nagusia, 1. Maila Autonomikoko Altsasu, iaz ez zen lehiatu. Pandemia zela eta, taldea osatzeko zailtasunak izan zituzten eta iaz ez aritzea erabaki zuten. "Soilik pena bat dut, emakumezkoen Altsasu erregional taldea aritu ez izana. Hori da datorren denboraldiko helburuetako bat, talde hori berpiztea" azaldu zuen denboraldi bukaerako balorazioa egitean Imanol Lobo Altsasu Kirol Elkarte futbol koordinatzaileak. Emakumezkoen talde nagusia berpizteko gogotsu egin du lan klubak eta helburua lortu da. Irailaren 2. asteburuan hasiko da Emakumezkoen 1. Maila Autonomikoko liga eta 2. multzoan lehiatuko da Altsasu, ondoko taldeekin: Mulier, Castejon, Lourdes, Universidad de Navarra, Kirol Sport, Amigo, Oberena, Mutilbera B eta Berriozar. Kirol Sport izango du lehenengo aurkaria. Bestalde, kategoria txikietan emakumezkoen Futbol 8 mailako Altsasu ariko da lanean.

Gazteen mailakoak ere, prest

Gazteen mailako kategoriak ere irailaren bigarren asteburuan hasiko dira lanean. Jubenilen 1. mailako Altsasuk historia egin zuen eta mailaz igo zen. Jubenilen Liga Nazionalako 1. mailara. Irailaren 2. asteburuan ekingo dio kategoria berriari Altsasuk, eta Osasuna B taldea hartuko du Dantzalekun.

Bestalde, jubenilen 2. mailatik 1. mailara igo zen Altsasu taldeak irailaren 3. asteburuan ekingo dio ligari. Lekunberriko Beti Kozkor izango du aurkari. Lakuntzako Lagun Artea taldea ere kategoria horretan lehiatuko da eta Doneztebe izango du lehen aurkaria, Lakuntzan.

Osasuna eta Mulier lanean

Emakumezkoen Osasuna talde nagusian ariko da aurten Maitane Vilariño olaztiarra, Reto Iberdrola 2. mailan. Igandean, 12:00etan, Osasunak Sporting Gijon taldea hartuko du Taxoaren ligako lehen partidaren.

Irati Igoa etxarriarraren Mulier taldea mailaz jaitsi zen eta aurten Nafarroako 1. Maila Autonomikoan ariko da. Mulierrek 2. asteburuan ekingo dio Ligari, etxean, Castejon aurkari duela.

Xotak Tafa du aurkari gaur Kopako finalerdietan

ARETO FUTBOLA Nafarroako Kopako finalerdia gaur, ostirala, 20:15ean jokatu da, Tafallan

Lehen Mailako Areto Futboleko Liga urriaren 8an hasiko da, irailaren 20an hasi eta urriaren 3an despedituko diren Munduko Areto Futbol Txapelketa jokatu eta gero. Osasuna Magna Xota urriaren 8ko asteburuan hasiko da lehian, eta mailaz igo den Manzaneres izango du arerio.

Bitartean, lagunarteko partidak eta Nafarroako Kopa ditu jokoen Imanol Arregi irurtzundarrak zuzentzen duen taldeak. Zehazki, gaur, ostirala, 20:15ean, Nafarroako Areto Futbol Kopako finalerdia jokatu du Osasuna Magna Xotak Tafa taldearen kontra, 20:15ean Tafalla kiroldegian hasiko den partidaren. Beste finalerdia Ribera Navarrak eta San Juanek jokatu dute.

Xotak 900 bazkide ditu jada

Osasuna Magna Xotak martxan du 2021/2022 denboraldiko bazkideen kanpaina. Dagoeneko 900 bazkideko muga gainditu du Irurtzongo taldeak, datu positiboa, eta interesatuek oraindik badute bazkide egiteko tartea, Irurtzongo edo Iruñeko bulegoetan. Bestalde, Xotak Areto Futboleko Liga Nazionala elkarteak utzi du eta hemendik aurrera Espainiako Futbol Federazioko kide gisa lehiatuko da.

TXIRRINDULARITZA

Kategoria txikikoan lasterketa Ziordian

Burunda Txirrindularitza klubak antolatuta, bihar, larunbata, 16:30etik aurrera txirrindularien bilgune izango da Ziordia. Kategoria txikietako lasterketak izango dira jokatu direnak, maila txikienetatik hasita haurren mailara bitartekoak, eta, horrekin batera, ginkana probak gainditu beharko dituzte txirrindulariek.



Adrian Martinez. MARTIN EARLY

Nahia Imaz eta Adrian Martinez, Nafarroako txapelkunak

TXIRRINDULARITZA

Nafarroako Erlojupeko Txapelketa irabazi zuten euren mailatan

Abuztuaren 7an Nafarroako Erlojupeko Txapelketak jokatu ziren Murchanten, eta txirrindulari sakandarrak bikain aritu ziren. Horieta batzuk podiumera igo ziren. Esaterako, afizionatuen 23 urtez azpiko mailan Igor Arrieta (Lizarte) 3. sailkatu zen (27:36), bere taldekide Unai Aznar txapelketatik 48 segundora.

Junior mailan, emakumezkoetan Nafarroa Ermitagañako Nahia Imaz altsasuarrak hegana egin zuen eta bera da Nafarroako txapelkun handia (22:52). Gizonezkoetan, Qesos Albeniz-Burundako Hugo Aznar kortestarra gailendu zitzaion (19:59) bere taldekide Mikel Unzilla etxarriarrari (20:21).

Kadeteetan, emakumezkoetan Nafarroa Ermitagañako Leire Urtasun lakuntzarra txapelketa irabazi zuen (13:37), bere taldekide Andrea Garcia txapelketatik 32 segundora. Gizonezkoetan, Sakana Group-Aralar taldeko Adrian Martinez irabazi zuen txapelkun handia (11:04). Qesos Albenizko Asier Etxeberria 3. sailkatu zen (11:08). Bestalde, asteburuan Adrian Martinezek Cantabriako Besayako Itzulian parte hartu du, Luyma taldean utzita, eta lehiakortasunaren maillota lortu du.

"Hasiera txarra izan zen, baina buelta eman diot"

AIMAR TADEO ARKAUZ SAKANA GROUP-ARALAR TALDEKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA Junior mailako bere lehen lasterketa irabazi du lakuntzarrak, Dicastilloko Sariko erlojupekoa, lepauztaiko lesioa eta alergiarazoa gainditu eta gero

Maidar Betelu Ganboa LAKUNTZA

Sakana Group-Aralar Txirrindulari Taldeko Aimar Tadeo Arkauz lakuntzarrak junior mailan debutatu du aurten, eta urte hasiera kaxkarrari buelta emanaz, agorrilaren 25ean Dicastilloko Sariko erlojupekoa irabazi zuen, bere lehen garaipena, eta igandean bigarren sailkatu zen Beasainen.

Junior mailan hasi zara aurten eta behetik gora egin duzu. Denboraldi nahasia izan duzu.

Bai. Orain arte urte hau nahiko txarra izan da niretako. Altsasuko lasterketan erorikoa izan nuen eta lepauztaia apurtu nuen. Bi hilabete inguru behar izan nituen osatzeko, eta ondoren alergiekin hasi nintzen. Beraz, urte nahiko kaxkarrari izan da, baina orain ematen du nire maila berreskuratzen hasi naizela eta buelta eman diodala.

Denboraldi berean ezbeharrei buelta emateko gai izatea ez dago baxterre gaizki.

Ez, egia esan, ez.

Gutxika goiko postuetara hurbiltzen hasi, eta aurreko astean, agorrilaren 25ean, Dicastilloko Sariko erlojupekoa irabaztea eta junior mailako zure lehen garaipena lortu zenuen. Zorionak!

Eskerrik asko! Dicastilloko Sarian bi proba zeuden. Batetik lasterketa, eta hor 19. postuan sailkatu nintzen, eta gero 2 kilometroko erlojupekoa, proba motza baina oso esplosiboa. Lehen kilometroa aldapa behera zen, eta bigarrena maldan gorakoa. Beraz, proba gogorra zen.

Dicastilloko 2 kilometroko erlojupeko hori 4 minutu eta 29 segundotan egin zenuen. Maila hori ematea eta erlojupekoa irabaztea espero zenuen?

Erlojupekoa egin nuenean, hasieran ez nuen irabaztea espero, baina nire taldekideek egindako denbora ikusi nuenean agian aukeraren bat izango nuela pentsatzen hasi nintzen. Txapelketa



Aimar Tadeo Arkauzi garaipenak lasaitasuna eman dio. UTZITAKOIA

nintzela ikustean, sekulako poza nuen. Ia ezin sinetsi.

Aurretik kadete mailan beste garaipen bat ba al zenuen?

Ez. Kadeteen mailan bizpahiru bigarren postu lortu nituen, baina garaipenik ez. Junior mailako Dicastillokoa da nire lehendabiziko garaipen serioa da.

Bost egun geroago, igandean, XL Beasain Proba - Mundialaren Aurreko Klasikoa jokatu zen. Talde oso garrantzitsuak lehiatu ziren, eta lasterketa irabaztear egon zinen, helmugan lehia estua izan baitzen Nicolas Alustizarekin (Bello-ta), esprintean.

Bai, Beasaingo izen handiko lasterketa zen, talde garrantzitsuak zeuden. Bigarren sailkatu nintzen, Nicolas Alustizarekin

"DICASTILLOKO ERLOJUPEKOA EGIN BERRITAN, EZ NUEN IRABAZTEA ESPERO; GERO JABETU NINTZEN"

esprinta izan eta gero. Gure taldeak, Sakana Group-Aralarrekin, lasterketako talderik onenaren saria jaso zuen, eta horregatik oso pozik nago. Talde garrantzitsuak parte hartu zuten Beasainen, eta taldekako sailkapena gure taldeak irabaztea handia da. Gure taldea oso ongi ikusten dut, eta horrek poz handia ematen dit.

Zure lehendabiziko garaipena lortzeak presioa kendu eta nolabait lasaitasuna eman dizu?

Alde batetik bai. Hasieran nire burua ez nuen ongi ikusten; lesioa zela, alergiak zirela... baina orain nire burua ongi ikusten dut, aurreko txirrindulariekin batera, eta lehen garaipena lortzeak eta Beasainen bigarren izateak animoan eragin handia du eta motibatzen nau.

Qesos Albeniz-Burundan Hugo Aznar kortestarrak garaipenak badiu eta Mikel Unzilla etxarriarra podiumera sarritan igo da, baina garaipena lortzea da denboraldia borobiltzeko falta zaiona.

Bai, Mikel hor dabil, aurrean, eta nik uste azkenean garaipena lortzeko aukera izango duela.

Irailean gaude, eta denboraldia bukatzeko ez dira lasterketa asko falta. Geratzen diren artean zein duzu gustukoena?

Larunbatean jokatuko den XLVIII. Lukingo Udala Saria dut gustuko. Juniorren eta kadeteen mailako lasterketa izanen da, eta ongi dago; kadeteetan nor dabilen indartsu ikusteko aukera izango da.

Denboraldia despeditzeko gertatzen diren lasterketetan zein da helburua?

Beste lasterketaren bat irabazi nahi nuke, baina hori ikusiko da. Nire maila ematea.

Nafarroako txirrindularitza selekzioarekin aritu izan zara Espainiako Txapelketetan eta hainbat probatan. Zer nolako esperientzia izan da?

Oso ona. Beste taldeetako txirrindulariak ezagutu, lagun gehiago egin... Burundakoekin egoten gara selekzioan.. Nafarroak selekzio ona du, maila handikoa, eta oso gustura aritu gara parte hartu dugun lasterketetan.

Errepideko denboraldia bukatu bezain pronto ziklo-krosekoa hasiko da. Aurten ere ariko al zara?

Ez, aurten ez dut ziklo-krosik egingo. Prestatzailearekin hitz egin nuen, eta datorren errepedeko denboraldia prestatzeari begira agian aurten ziklo-krosekoan ez aritzea hobe izango litzatekeela aipatu eta gero, erabakia hartu dut.

Pandemia dela eta, aurtengoa ez da denboraldi arrunta izan. Datorrena normalagoa izango dela aurreikusten da?

Ez da urte normala izan, baina ezin gara kexatu. Pentsatzen dut hurrengo denboraldia normalagoa izango dela. Datorren urteko errepedeko lasterketei buruz oraindik ez dakit ezer, baina hastear dagoen Ziklo-kros Txapelketari dagokionez, esan dute aurten Gipuzkoako probak antolatuko direla eta beste hainbat ere bai. Beraz, ea normaltzen den.

"SAKANA GROUP GURE TALDEAK BEASAINGO MUNDIAL AURREKO KLASIKOA IRABAZTEA HANDIA DA"



Hodei Samaniego, Imanol Goñi eta Beñat Katarain, helmugara iritsi berri. Beriainen eta gertuko parajeetan gustura ibili ziren. MIREN ARREGI OLIVENZA

Beriaindik Bargagainera

MENDI LASTERKETAK Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak Tritoiena Traila antolatu zuen igandean Arbizuko kanpinean, Goñik eta Zubillagak irabazitakoa, eta bihar, larunbata, I. Bargagain Igoera prestatu du, goizeko 10:00etan Altsasuko plazatik abiatuko dena

Maidar Betelu Ganboa ARBIZU/ALTSASU Beriaindik Bargagaineraino. Ibilbide horien artean mugitzen ari da, egunotan, Dantzaleku Sakana Atletismo Kluba. Izan ere, igandean V. Tritoiena Traila antolatu zuen klub sakandarrak, Arbizuko Ekokanpinarekin batera, eta bihar, irailak 4, larunbata, I. Bargagaingo Igoera antolatuko du, goizeko 10:00etatik hasita, Altsasun.

Tritoiengan ezin hobeki

Tritoiena egun borobila izan zela aipatu dute Dantzaleku Sakana Atletismo Klubekoak. Pandemiak eskatutako osasun arauak jarraituz antolakuntzak prestatutako 200 tokiak aspaldi agortu ziren. Mendi korrikalariak Arbizuko ekokanpinean gogotsu zeuden probak zituen 20,6 kilometro eta 1.053 metroko desnibel positiboari ekiteko, eta hasieratik bizi-

bizi hasi zen Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako puntuagarria zen proba.

Goñi-Zubillaga erakustaldia

Igandekoa egun aparta izan zen lasterkarako. Elegantea. Hasieran fresko, gerora epeldu zuen, baina ez zuen gehiegi berotu. Aurrepegi ezagunak zeuden korrikalarien artean. Kanpinetik aterata, Ondatz eta Unanu gaintituta, Beriain igotzeko lanari ekin zioten korrikalariak. Ibilbidean zale dezente pilatu ziren korrikalariak animatzera. Uharteko Arakilgo portutik jaitsi ziren,

TRITOIENA TRAILLEAN SEKULAKO GIROA EGON ZEN ETA KORRIKALARIAK GUSTURA IBILI ZIREN

baina portu erdian Unanu aldean egin zuten, Ondatz gaintetik Arnatzera sartu eta hortik Arbizuko kanpineko helmugara heltzeko. 149 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea.

Natxituako Imanol Goñik eta Lakuntzako Beñat Katarainek, Euskal Selektioko kideak, lehia gogorra izan zuten, baina azkenean Imanol Goñi gailendu zen, helmugara ordu eta hiru laurdenetan iritsiz (1:45:58). Hasieratik erritmo gogorra ezarri zuen Goñik, igoeran arerioei alde ateratzeko asmoz. Laugarren sailkatutako Aitor Blanco, Hodei Samaniego eta Beñat Katarain gertu izan zituen, baina aldeari eustea lortu zuen. Lasterketaren edertasuna nabarmendu zuen Goñik, eta "izugarri disfrutatu zuela" azpimarratu zuen. "Ikuspegiez, mendiaz, altuera sentsazioaz... asko disfrutatu dut"

adierazi zuen. Beñat Katarain minutu eta 28ra sartu zen (1:47:26). Sestaoko Hodei Samaniego izan zen hirugarrena (1:48:03).

Emakumezkoetan, Anoetako Oihana Zubillaga (2:15:18) gailendu zitzaion Iruñeko Salinas-ko Izaskun Sanz beteranoari (2:18:20). Ana Reina lesakarra hirugarren sailkatu zen (2:28:56). Aurten ez zen emakume sakandarririk aritu.

Dantzaleku Sakanak Tritoiengan balorazio ona egin du. "Sekulako giroa egon zen eta primerako eguraldia egin zuen. Hiru anbulantzia eta 2 mediku egon ziren proba jarraitzen, eta ez zen ezbeharririk gertatu, ohiko urradurak ezin ezik. Ibilbidea ederra da, eta korrikalariak oso pozik zeuden, antolakuntzarekin eskertuta. Egun bikaina izan zen" azaldu du Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko Peio Bergarak.

Sakandarrak Tritoiengan

149 korrikalari sailkatu ziren.

V. Tritoiena Traila (20,6 km)

GIZONAK

1. Imanol Goñi	1:45:58
2. Beñat Katarain	1:47:26
36. Ioseba Iza	2:10:55
40. Ander Iraizoz	2:12:39
54. Asier Ansa	2:17:31
56. Alberto Razkin	2:18:30
57. Joxeja Maiza	2:18:31
58. Carlos Mañeru	2:18:34
71. Fran Araña	2:21:52
84. Ibon Ubeda	2:26:01
95. Asier Gartzandia	2:31:00
100. Ion Igoa	2:32:41
118. Urko Rekalde	2:39:50
129. Iban Martin	2:46:13

EMAKUMEAK

1. Oihana Zubillaga	2:15:18
---------------------	---------



Helmugara heltzeko prest. MIREN ARREGI



Tritoiengan aritu ziren emakumeetako batzuk elkarrekin atera ziren. MIREN ARREGI

Bihar, Bargagain helburu

Beriaini Bargagainek hartuko dio lekukoa bihar, larunbata, 1. Bargagaingo Igoera-Hotel Izelai Sari Nagusia antolatu baitu Dantzaleku Sakanak. "Arrazoi asko daude proba prestatzera bulkatu gaituztenak. Batetik, altsasuarrendako beti erronka izan da Bargagain zenbat denboran igoko ote dugun jakitea. Betidanik. Bestetik, joan den urtean Dantzalekuko Jabi Gasanzek eta Jokin Bereziartuk 21 ordu pasako tartean Bargagain 12 aldiz jarraian igo zuteneko erronka ilusio handiz bizi izan zen herrian. Hirugarrenik, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren barruan mendi taldea dugu, eta 14 neska-mutil inguru ibiltzen dira bertan, Gasanz eta Bereziartu tartean. Joseba Galarzarekin batera, 16 urtetik gorako mendi atletismo taldea entrenatzen dute hirurek, gazteen artean arrakasta handia izan duena. Bestetik, Haizea Ramirez de Alda eta Erkuden San Martin ere Dantzalekuko mendi korrikalariak dira, eta polita iruditu zitzaigun korrikalari guztiei begira Bargagaingo Igoera prestatzea. Mendi lasterketarekiko dagoen zaletasuna aprobetxatuz egun ederra antolatu dugu, guztien gozamenarako. Eta gogora ekarri nahi dut 1993. eta 1994. urteetan Bargagainera Igo eta Jaitsiera lasterketa antolatu zela" azaldu du Dantzaleku Sakana klubeko Peio Bergarak.

4,2 km eta 625 m desnibela

I. Bargagaingo Igoeran parte hartzeko izena eman duten 60 korrikalariak larunbatean, goizeko 10:00etan abiatuko dira Foru Plazatik (528 m). Herritik jaitsita, probako babeslea den Izelai Hotel pareraino joango dira, BM merkataritza gune parean buelta hartu eta Iru Bide parean Bargagaingo bidera joz, gurutzeraino heltzeko (1.153 m.). 4,2 kilometrotan 625 metroko desnibela gainditu beharko dute. "Atera kontuak! Badirudi Bargagain hor bertan dagoela, gertu-gertu, baina igoera gogorra da, oso exigentea. Gazteluko aldapa, esaterako, oso gogorra

"60 KORRIKALARIK EMAN DUTE IZENA BARGAGAINGO IGOERAN; OSO POZIK GAUDE" PEIO BERGARA



Jabi Gasanz eta Jokin Bereziartu, joan den urteko Bargagaingo erronkan. UTZITAKOIA

Iker Karrerarekin Beriainera

Bihar, larunbata, Iker Karrera mendi korrikalari ezaguna Uharte Arakileren hurbilduko da, bi ekimenetan aritzeko. Batetik, 16:00etan, Sakanako Trail Estaziotik abiatuko da, Beriain Km Bertikala lasterka osatzeko asmoz. Nahi duenak berarekin egin ahalko du ibilbidea. Ondoren, 19:30ean, 'Iker cabeza de Karrera' bere liburua aurkeztuko du Uharteko udaletxean.



Iker Karrera eta Aritz Ganboa, Bideak egitasmoan Izabara iristen. BIDEAK

da. Proban parte hartzeko presatatu beharra dago" azaldu du Bergarak.

Banaka edo taldeka parte hartuko dute korrikalariak. Taldeen kasuan, azkeneko tokian sartzen denaren denbora hartuko da kontuan. "Lasterketa herrikoia- go egiteko erabaki genuen taldeka parte hartzeko aukera ematea" erantsi du Bergarak. Probaren segurtasuna bermatzeko ambulanzia eta medikua egonen dira Gaztelu parean.

Behin korrikalari guztiak gurutzerara helduta, guztiak batera jaitsiko dira, eta 12:30ean izango da sari ematea, Foru Plazan. Txapeldunek txapelak, eta gaituzteko sarituek Katealde pateak eta Conservas del Reinoko produktuen loteak jasoko dituzte opari. Azkenekoek ere saria lortuko dute: afaria Il Padrino jatetxean.

Larunbaterako eguraldi ona iragarri dute, eta proba jarraitzera eta korrikalariak animatzera joateko deia egin du Dantzalekuk. "Lehen edizioa izateko 60 korrikalarik izena ematea, jada, arrakasta handia da. Oso pozik gaude" nabarmendu du Bergarak.

Dantzaleku ekipazio berria salgai Dantzaleku Sakana Atletismo Taldeak ekipazio berria mustu du, Joma etxeko emakumeendako eta gizonendako ekipazio osoa. Jantzi berria erosteko aukera izango da Dantzalekuk Foru Plazan jarriko duen postuan.

"BARGAGAINGO IGOERA OSO GOGORRA DA: 4,2 KM-TAN 625 M-KO DESNIBELA DU" PEIO BERGARA



Mendoza, saria jasotzen. UTZITAKOIA

Aurrekariak: 1993 eta 1994 urteko feriak

1993. urteko Altsasuko Ferietako larunbat goizean 1. Bargagainera Igoera eta Jaitsiera antolatu zen. Oso gogoan du Peio Bergarak. "Jose Manuel Goikoetxea "Fardel" zen orduko alkatea, eta Antton Ramirez de Alda kirol zinegotzia. Altsasuko Peñen elkartearekin batera antolatu zen lasterketa. Altsasutik atera, Bargagainera igo eta atzera ere plazaraino jaitsi beharra zegoen. Lau parte hartzaile izan ziren" aipatu du Dantzalekukoak. "Hurrengo urtean ere, 1994. urtean, lasterketa antolatu zen. Orduan 6 parte hartzaile izan ziren. Eguraldi oso kaxkarrarekin jokatu zen proba, zirimiria eta lainoa ari zuela, eta gogoan dut Aitor Mendozak irabazi zuela, 16 urte inguru zituela, oso gazte. Igor Artieda etxarriarra bigarren sailkatu zen, Jose Andres Cerro hirugarren eta Elena Sanchez altsasuarra laugarren izan zen, Julian Otaegirekin batera helmugara iritsita. Josean Salgadok ere parte hartu zuen" ekarri du gogora Bergarak.

Baina urte hartatik aurrera ez ziren lasterketa gehiago antolatu, bihar arte. Eguraldi ona iragartzen dute, eta egun polita espero du Dantzalekuk.



Bikerrek ikusleen animoak jaso zituzten Irurtzunen eta baita bide, xenda eta txokoetan. MIREN ARREGI OLIVENZA

340 biker Irurtzungo txokoak ezagutzen

AIZKORA CD Irurtzun Taldeak antolatutako La Peluso BTT Xtremek harrera bikaina izan zuen. Bi ibilbide prestatu zituzten, 60 eta 30 kilometrokoak. Munduko Master 40 mailako Txapelketa irabazi berri duen Patxi Ciak omenaldia jaso zuen

Errepideen orde, xendak, bidekak eta aldapak. Hautu hori egin du CD Irurtzun Taldeak. Maiatzaren 8an La Peluso Zikloturista Martxa antolatzeakoak ziren. 1.200 txirrindulari zeuden izena emanda, baina pandemiak eskatutako osasun arauak betetzea bideragarria ez zenez, zikloturista proba 2022ra atzeratzea

erabaki zuten antolatzaileek eta horren orde abuztuan BTT edo mendi txirrindularitza proba antolatzea, La Peluso BTT Xtreme. Proba larunbatean jokatu zen, arrakasta handiz.

CD Irurtzun Taldeak bi ibilbide antolatu zituen: luzea, 60 kilometrokoa eta 2.200 metroko desnibelekoa, eta laburra, 30

kilometrokoa eta 900 metroko desnibelekoa. Irurtzun erdigune hartuta, inguru paregabeetan ibilbide eder eta ikusgarria prestatu zuten. Ibilbide luzean, tartean, Ergako Trinitatea, Ziako eta Oskozko gainak eta Etxaleku gaudituz behar izan zituzten. Bi distantziak kontuan hartuta, 340 bikerrek hartu zuten parte La

Peluso BTT Xtremen eta guztiek probaren gogortasuna eta edertasuna goraiatu zituzten.

Patxi Ciari omenaldia

Ibilbide luzea osatu zuen lehen txirrindularia Tafallako Erik Altuna izan zen (2:56:28). 19 segundo atera zizkion Ororbiako Iñigo Sagardoyri (3:56:47). Patxi Ciak beterano iruindar ezaguna izan zen hirugarrena (2:59:38). Ciak munduko Master 40 mailako Txapelketa irabazi zuen abuztuaren 22an Pra Loup eski-estazioan, Alpe frantziarretan, eta ortzadar koloreko maillota jantzita aritu zen. La Peluso BTT Xtremeko antolakuntzaren alde tik omenaldi xumea jaso zuen, eta biker asko gerturatu zitzaizkion zoriontzera. Oso pozik zegoen, eta Irurtzungo proba "ikusgarria, ederra, teknikoa eta osoa" iruditu zitzaion.

Eukeni Goikoetxea, txapeldun

Ibilbide luzean lehen sakandarra Andoni Agirre Untzilla arbizuarra izan zen, 27. postuan (3:41:44). Aldiz, ibilbide laburreko txapelduna sakandarra izan zen. Eukeni Goikoetxea Larraza altsuarra gailendu zen 30 kilometroko proban, (1:22:10), Luzaideko Oier Mateori 13 segundo aterata. Muskitzeko Alberto Sarasak osatu zuen podiuma (1:23:21).

Indarrak berreskuratzeko paela gozoa zuen prest antolakuntzak Irurtzungo plazan, eta festa ederra ospatu zuten bikerrek.

PATXI CIAK, MASTER 40 MAILAKO MUNDUKO TXAPELDUNAK, OMENALDI BEROA JASO ZUEN



Patxi Ciak eta Erik Altuna, jasotako oroigarriekin. MIREN ARREGI OLIVENZA

Iban Resano eta Iker Vicente, Nafarroako txapeldunordeak

AIZKORA Rekondo eta Saralegi txapeldunek baino minutu bat eta 23 segundo gehiagotan egin zuten lana

Agorrilaren 22an Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketa hartu zuen Lekunberrik. Aizkolari sakandar bakarra zegoen, Iban Resano dorrobarra. Resanok Iker Vicenterekin osatu zuen bikotea, eta haiekin batera Jon Rekondo eta Eneko Saralegi eta Julen Kañameres eta Joxean Etxeberria bikoteak aritu ziren.

Sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako, hori zen bikote bakoitzak egin beharreko lana, eta, hasieratik, lehia oso estua izan zen. Azkenean Jon Rekondok eta Eneko Saralegik lortu zuten Na-

farroako Bikotekako txapel nagusia (26:00.17). Iker Vicenteri eta Iban Resanori minutu bat eta 23 segundo atera zizkieten (27:23.79).

Beltza, aizkora zorroztera

Igandean, 12:00etan, 3. Mailako Euskal Herriko Aizkora Txapelketa 2. kanporaketa hartuko du Mungia Matxin plazak. 9 aizkolari ariko dira, tartean Goizeder Beltza Igoa etxarriarra. Berarekin batera Aritz Irazabal, Mikel Agirre, Unai Zabala, Urtzi Olsagasti, Andoni Iruretagoie-



Nafarroako Bikotekako Aizkora Txapelketako finalista, lanak bukatuta. ERRAN.EUS

na, Xuban Kañameres, Jon Telletxea eta Oier Larretxea lehiatuko dira, eta lehen bi postuetan sailkatzen diren aizkolariak lortuko dute final handirako txartela. Bakoitzak lau kanaerdiko erdibitu beharko ditu.

Bestalde, Iker Gorritik Nafarroako 3. Mailako Txapelketako finalera sailkatzea lortu zuen igandean Etxalarren, hirugarren sailkatu eta gero. Aritz Oiarbide eta Ioan Goikoetxea finaletik kanpo geratu ziren.

PILOTA Martijaren itzulera play-off erabakigarrian

Masters CaixaBank Torneoko hasierako ligaxkakako 7 jardunaldiak jokatu, Peña II.a-Rezustak eta Olaizola II.a-Zabaletak lortu dute zuzenean finalerdietara sailkatzea. 3. eta 6. postuen artean sailkatu diren 4 bikoek play-offak jokatu dituzte asteburuan.

Urrutikoetxeak eta Martijak Altuna III.a eta Aranguren izango dituzte aurkari igandean Zumaietan. Etxeberri atzelaria kanporaketa garrantzitsurako itzuli da, azken bi jardunaldietan atsedean hartu baitu, eskuineko eskua justu samar zuelako. Beste play-offa Etxeberria-Albisuk eta Elezkano-Mariezurrenak jokatu dute. Ezkurdia-Imaz txapelketatik kanpo geratu dira.

Serio, baina barregarria

'Barre Libre' saioan mustu zen Joxe Aldasoro bakarrizketalari lanetan, polemika eta guzti. Irailaren 9an Etxarri Aranatzan ariko da Antton Telleriarekin batera. Edozertaz barre egin aurretik norberaren buruaz barre egin behar dela esan du etxarriarrak

Eneida C. M. / Erkuden R. B. ETXARRI A.

Idazle alderdiagatik ezaguna da Joxe Aldasoro etxarriarra. Hainbat literatur lehiaketa irabazi ditu, nahiz eta azken aldian "nahiko frustratuta" dagoela aitortu duen: "Ez zait fundamentuzko ezer ateratzen". Irakaslea da, eta aurten jantokiko arduraduna izanen da. Irakasle bezala ipuin asko kontatzen ditu, eta udazkenean ipuin kontalari saio bat egin zuen ere. Badu asmoa horrekin saltseatzen jarraitzeko. Bateria ere jotzen zuen. Eta, duela gutxi, agertokiaren gainera igo da bakarrizketak egitera. Irailaren 9an, osteguna, 20:00etan, Antton Telleriaren "teloneroa" izanen da. "Kontzertuetan gertatzen den bezala, talde onaren aurretik, jendea biltzen den bitartean, ni egonen naiz".

Dena Oreretako antzerki labea eskolan izena eman zuenean hasi zen. Ipuin kontalari bezala trebatzeko antzerkian "muturra sartzen" hasi zen Aldasoro, eta bi ikasturte eta erdi aritu zen bertan, pandemiarekin bertan behera geldituko zirelako saioak. "Nire ideia zen trebatzea ipuinak kontatzeko, gestualidadea, hitz-jarioa eta abar". Baina antzerki eskola horretan gehienbat gorputz adierazpena lantzen zen. "Oso interesgarria da, baina testua ez zen hainbeste lantzen". Udazkenean bakarrizketa ikastaro batean izena ematea erabaki zuen. "Lau hilabete izan ziren". Ikasturtea amaitzean emaldi bat egin behar zuten, pandemiagatik bertan behera gelditu zen, baina Aldasorok dagoeneko testuaren erdia sortua zuen.

'Barre Libre'

Orduan iritsi zen *Barre Libre* ETBko umore saioan agertzeko aukera. Jendeak parte hartzeko kanpaina zabaldu zuten, eta bi minutuko bideo bat bidaltzeko



Joxe Aldasoro etxarriarrak bakarrizketa saioa egiten du herrian.

eskatzen zuten. "Agurainen, kallean, grabatu nuen eta bidali nuen. Ez zuten erantzuten, eta programa ikustean jende berria ateratzen zela ikusten nuen. Bueno, ez naute onartu edo". Aste Santuko oporrak baino lehen kastina

"BAKARRIZKETALARIA NI NAIZ, ETA EZ NAIZ NI. PERTSONAIA NAHASTU EGITEN DA"
JOXE ALDASORO

egiteko deitu zioten. "Donostiara joan nintzen, eta han Aitziber Garmendiarekin eta Jon Plazaolarekin egon nintzen. Maiatzean programa grabatzera joan nintzen". Astelehenean grabatu, eta ostegunean emititu zuten.

Grabatu aurretik baldintza bat jarri zieten bakarrizketalari gonbidatuei: hiru minutuko bakarrizketa izan behar zuen. "Nire bakarrizketa hiru minutu eta 20 edo 25 segundokoa izan zen". Ostegunean saioa bota behar zuten egunean abisatu zioten beste bakarrizketa guztiak bezala berea ere moztu beharko zutela, bestela, programa asko luzatuko zelako. "Banekien zerbait moztuko zutela, baina ez nekien zer". Hiru txiste moztu zituzten: "Bat mintzaldiaren erdian eta beste bi txiste moztu zituzten, eta gelditutako zatia beste txiste batekin elkartu zuten". Hurrengo egunean Aldasorok programarekin zuen kontaktuari deitu zion, eta kexa lasai jartzeko esan zioten. Ofizialki erantzun zioten gonbidatuek hiru minutuko muga zutela: "Baina aurreko asteko gonbidatua lau edo bost minutu aritu zen, eta ondorengo saioan ere muga hori gainditu zuen".

"Esperientziarekin pozik, baina ikusten da zein ahulak diren askatasunak". Bakarrizketa grabatu aurretik Aldasorok testua bidali zien, "hor hasten da kontrola". Baina, dirudiezez, gidoia irakurri behar zuenak edo "guraizeak pasatu behar zituenak" ez zuen irakurri, eta, ondoren, grabazioan zer esan nuen entzun zuten.

Bakarrizketak

Bakarrizketa mota asko daudela azaldu du Aldasorok. "Ni hasiberria naiz, ez dut autoritate handirik. Nik egiten dudana edo egiten saiatzen naizena da orain edo azken urteetan modan dagoen bakarrizketa egiten; bakarrizketa barregarria". Bakarrizketa sortzearen prozesua hunkitzen duten gaiak, ideiak eta egoerak idaztearekin hasten da. "Apuntatzen ditut, edo buruan gordetzen ditut. Horiei ikuspuntu barregarria txertatu behar zaie, edo ikuspuntu barregarri batetik kontatzen saiatu behar da". Garraztsua da, bakarrizketak egiten hasi aurretik eta edozertaz barre egin baino lehen "geure buruaz barre egiten ikastea".

"Bakarrizketalaria ni naiz, eta ez naiz ni. Pertsonaia nahastu egiten da". Aldasoro bakarrizketalariaren papera "oso serioa" da.

"Nahita egiten dut. Nire karta izan daiteke hori. Serio jokatu eta umorearekin kontraste hori egin". Bakarrizketalaria ona bada inprobisazioarekin jolasteko aukera duela azaldu du Aldasorok: "Bakarrizketalari onek gaitasuna dute sortzen diren elementuak bakarrizketan txertatzeko". *Barre Libre* saioko bakarrizketa etxarriarren lehenengoa izan zen, "eta dut uste ahalmen hori daukadala". Gasteizen beste bakarrizketa saio bat egin zuen zazpi bakarrizketagileekin batera eta aurkezleak bakarrizketak "lotzen" zituela esan du, "ona zen. Inprobisatzen, publikoarekin interaktuatzen eta abar bazekielako".

Herrian

Barre Libre saioaren ondoren Etxarri Aranatzko kultur zinegotziak "ea egingo nuen zerbait" komentatu zion. Antton Telleriaren emanaldia itxia zegoen, eta baimena eskatzeko esan zuen Aldasorok. "Ikuskizuna berea da, eta prest agertu zen. Nik egingo dudana sarrera bat da". Emaldi ostegunean, irailaren 9an izanen da, 20:00etan, Etxarri Aranatzko plazan eta gonbidapenak udaletxean har daitezke. Lehenengo bakarrizketa herrian egin aurretik "Tuteran edo Maulen" egitea nahiagoko zuela esan du, erdi txantxetan, Aldasorok.

Testua dagoeneko prest dauka. "Baina denarekin gertatzen den bezala, zenbat eta gehiago entseatu, orduan eta detaile gehiago bururatzen zaizkit, gauzak kentzen ditut... fintzen". Bakarrizketa prestatzeko, Aldasoro "etxean pasotxoak" ematen hasten da, eta testua memorizatuta duenean telefonoan grabatzen du. "Grabatu eta ikusi, etengabe".

"Nik jorratzen ditudan gaiak ateporalak direla esan dezakegu, ez da zerbait oso sakona. Hemendik sei hilabetetara berdina izan daiteke". Bakarrizketalari "onek" aktualitateko gaiak sartzeko gaitasuna dutela esan du. "Nik landu dudana gaia ez da aktualitate politikoa edo kirolekkoa, eta topikoetatik aldetzen saiatu naiz". Jendeak esan beharko du.

Antton Telleriaren "teloneroa" izanen denez, aurretik bere lana ezagutu nahi izan zuen Aldasorok, eta Errenteriara joan zen *Nekatutak* ikuskizuna ikustera. "Beregana joan nintzen, eta neure burua aurkeztu nuen". Aurretik telebistan agertzen zelako eza gutzen zuen bakarrik.

Hogeigarrenez, 'Ezin zailagoa'

'Ezin zailagoa' jaialdia hoge urte bete ditu, eta Altsasun eginen dute urteurrenaren azken emanaldia. Bi arte eszeniko proposamen ekarriko dituzte: 'Argako Erregina' eta 'Sacred'

ALTSASU

Zirkua Nafarroa osoan zabalatzeko helburuarekin sortu zuten duela hoge urte *Ezin zailagoa* jaialdia. Bost udalek bat egin zuten udan kaleko programazioa egiteko, eta kalean egin daitekeen ikuskizun egokiena zirkua da. Bost herri hauek elkartu ziren zirku jaialdia antolatzeke eta programa bera herri guztietan egiteko. Konpainiek zirku karabana bat bailitzan Nafarroan zehar bidaiatzeko dute. Gaur egun Tuteran, Vianan, Uhartan, San Adrianen eta Altsasun egiten da jaialdia.

Nafarroako zirku jaialdian goi mailako konpainiek parte hartzen dute. Zirku garaikidea da eta ideia berriak aurkezten dituzte, eta horregatik erreferentziatzeko zita bihurtu da. Arte eszenikoen diziplinak uztartzen dituen zirkuaren aldeko apustua egiten dute ere.

Urteurrenaren jaialdia da aurten, eta Altsasun itxiko dute ospakizuna. Irailaren 4an, larun-



'Sacred' ikuskizuna. UTZITAKOIA

batean, izanen da, eta bi proposamen aurkeztuko dituzte: *Argako Erregina*, 19:00etan, Baratzekobiden, eta *Sacred*, 22:00etan, Iortia zabalgunean.

Remigia Echarren funanbulista nafarrari egindako antzerki omenaldia da *Argako Erregina* ikuski-

zuna. Iruñean aritzen zen zirku-gilea zen, eta XIX. eta XX. mendeetan oso ezaguna zen. Estefanía de Paz Asínek antzerkiaren eta zirkuaren bidez Remigia Echarren nor zen azalduko du. La Glo Circo konpainiak eta Tracken Studiok *Sacred* ikuskizun berritzailea egiten dute.



BAZTERRETIK

ALTSASUKO LIBURUTEGIA

Oporren ondoko proposamenak

Altsasuko Liburutegi Publikotik irakurketa proposamen hauekin gatzoz:

• Helduendako: **Herriak ez du barkatuko** (Elkar, 2021) Irati Goikoetxea.

Irati Goikoetxeak (Beasain 1984) 2019ko Igartza Saria jaso zuen *Herriak ez du barkatuko* eleberriarekin. ETaren biktima baten mina landu nahi izan du egileak, eta liburua "eztabaidatzeko" tresna izatea espero du.

ETak aita hil zion Oihanari duela hogeita bi urte, berak hemeretzi zeuzkala. Zauria bizirik du oraindik, baina ez

du horretaz inorekin hitz egiten; bere seme-alabei ere ez die ezer argirik kontatu, nahiz eta barruan sumatu on egingo liekeela denei kontatzeak.

Ezustean, biktimen lekukotasunak jasotzen dabilen antropologo baten deia jasoko du, ea berarekin bildu nahi duen.

• Familia-haurrendako: **Goliat eta izarrak; Joanes eta kanpaiak; Aiert eta herensugea; Maren eta azeria** (Ibaizabal, 2019-2020) Patxi Zubizarreta (idazlea) eta Jokin Mitxelena (ilustratzailea).

Bilduma hau aproposa iruditzen zaigu seme-alabekin irakurtzeko. Literaturaren bitartez bidaiatu egin daiteke, eta bidaia horrek, askotan hurbil izanagatik ere, ezezagun ditugun leku horietara eraman gaitzake. Horixe da Garalar Maralar liburu ilustratu laukotearen kasua. Bildumak irakurlea Aralarko mendietara hurbiltzea du helburu, bertako bide, gailur eta kobazuloetan barneratzea, Joanes artzaina, Goliat txakurra eta Aiert eta Maren anaia-arrebak protagonista dituzten abentura eta pasarteen eskutik.

"Esperientzia honek begiak ireki dizkit"

PAULA URABAYEN OCHOA-AIZPURUA DANTZARIA
Russian Masters Ballet konpainiaren ikastaro trinko batean egon da altsasuarra. Dantzari profesionala izateko trebatzen ari da dagoeneko

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Dantzan oso gazte hasi zen Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua, eta, orain, 13 urterekin, oso argi dauka: dantzari profesionala izan nahi du. Horretarako balletean trebatzen ari da Iruñean, eta uda honetan Errusiar dantza konpainia bateko Vaganova Academy Summer Intensive ikastaroan egoteko ohorea izan du, Alacanten. Dantza munduan jarraitzeko indarra eman dio.

Noiz hasi zinen dantza egiten?

Lau urterekin hasi nintzen dantzatzeko. Ez nintzen balleta ikasten hasi, estilo horrek ez baininduen erakartzen. Irantzuz Gonzalezekin hasi nintzen. Altsasun hasi zenetik hasi nintzen berarekin, eta duela urtebete inguru bukatu nuen berarekin, profesionalki trebatzeko Iruñeko Almudena Lobonenera joan nintzelako.

Noiz erabaki zenuen balletarekin hastea?

Niri dantza garaikidea gustatzen zait. Orduan, jende guztiak esaten zidan garaikide ona egiteko klasikoaren oinarri ona izan behar dela. Ezinbestekoa da klasiko egin nahi dituzun estilo guztietarako. Orduan pentsatu nuen, "orain nora noa?". Irantzuz Almudena Lobon gomendatu zigun, eta hor hasi nintzen. Bertan ari naiz etorkizunean dantzari profesionala izateko.

Zenbat denboraz entrenatzen zara?

Egunero joaten naiz, ordu eta erdi. Bazuatan hiru ordu ere egoten gara, ostiraletan; 15:30ean hasi eta 21:30 inguruan bukatzen dugu. **Sakrifizioa da?**

Oso argi daukat hau egin nahi dudala, baina, bai. Gauza asko alde batzera utzi behar dira bazuatan: herriko bizitza, ikasketak, lagunekin ezin naiz gelditu entseatzera joan behar dudalako... gogor samarra da.

Udan Errusiako konpainia bateko ikastaro batean egon zara. Nola iritsi zinen ikastaro horretara?

Almudena Lobonen ari nintzela amak esan zidan Russian Masters Balleten ikastaro bat egiteko kasting bat egiten ari zirela. Amari galdetu nion ea horretara aurkezteko benetan prest ikusten nintzen. Hasieran bertigo pixka bat eman zidan, gau asko lo egin gabe egon nintzen. Amak saiatzeko esan zidan, eta bestela hurrengo urtean saiatuko gine-la berriz. Esperientzia bizitzeagatik ez zen ezer gertatuko, ezetza bageneukan, eta abentura bizi behar nuen. Casting bat egin behar izan nuen, Madrilan.

Nolakoa izan zen castinga?

Ballet klase normal baten antzekoa zen, baina kamerak zeuden eta goian ikuskatzaileak zeuden argazkiak eta bideoak egiten, gero haiek lasaiago ikusteko. Nire lehenengo castinga izan zen. Pandemiaren aurretik egin nuen, eta ikastarora 2020an joan behar nuen, baina bertan behar nuen. Hamabost egun egon nintzen ikastaroan, uztailearen 12tik 25era.

Nolakoa izan zen onartua zeudela esan zizuten momentua?

Negar egin nuen. Castingean jende oso ona ikusi nuen, eta ezin nuen sinetsi. Ez nuen inolaz



Paula Urabayen Ochoa-Aizpurua balleta ikasten ari da.

ere irudikatzen. Emozioz negar egin nuen, ama ere negarrez...

Sartzea espero zenuen?

Castinga amaitzean irakasle batek baiezeko keinu bat bezala egin zidan; nire estiloa gustatu zitzaiola pentsatu nuen.

Zer nolako esperientzia izan da ikastaroa?

Iritsi nintzenez beste neska guztiak elkarrekin zeudela eta lagun taldean zeudela ikusi nuen, eta ni gurasoekin bakarrik nengoen. Non sartu ote naiz pentsatu nuen. Abenturara bakarrik joan nintzen, eta besteak dagoeneko lagun taldeekin joaten ziren; kontserbatorioko lagunekin edo eskolako lagunekin. Orduan, arriskatzea erabaki nuen. Disfrutatzea. Gogorra izan zen ere, ez zelako nire betiko errutina eta bizitza estiloa pixka bat aldatzea suposatzen zuelako. Baina izugarri disfrutatu nuen.

Nolako zen egun bat?

Hotel batean lo egiten genuen. Goizeko zortzi eta erdietan jaikitzen gintuzten. Ordu erdian jantzen ginen, eta gosaltzera jaisten ginen. 10:00etan jarduerak egiten hasten ginen: hondartzara joan, eskulanak... egunaren arabera. Gero ballet klaserako jantzeko tartetxo bat ematen ziguten: mallota jantzi, mototsa egin, mediak... Gauean

telefono mugikorra kentzen zigitzen, oso zorrotzak ziren telefonoarekin, eta bazkaltzeko orduan tartetxo batean ematen ziguten; denbora libre pixka bat ematen ziguten. Jaisten ginen, eta hotelaren sarreran itxoiten genuen. Tenperatura hartzen ziguten, eta meriendatzeko fruta hartzen genuen. Dietista bat zegoen, eta gaizki sentitzen baginen geratzeko aukera genuela esaten zigun. Autobusera igo, eta Noveldara joaten ginen, kontserbatoriora. Bertan 15:30etik 21:00etara entseatzen egoten ginen. Dutzatu gabe afaltzera joaten ginen, eta logelara oso beranduta igotzen ginen. Dutzatu, familiarri deitu eta hitz egiten geratzen ginen pixka bat. Argiak itzaltzen zituzten, eta lotara.

Oso intentsiboa, beraz. Nolakoak ziren klaseak?

Mailak zeuden. Ni gaztetxoena nintzen; besteek 15 urte inguru zituzten. Open Profesional edo pre profesional lau maila zeuden: O1, O2, O3 eta O4. Niri adinagatik

"EDOZEIN DANTZA ESTILO EGITEKO KLASIKOAREN OINARRI ONA IZAN BEHAR DA"

zegokidana baino maila bat altuagoan jarri ninduten, ez dakit zergatik, eta O2an nengoen. Profesionalen sei maila zeuden. Open-ean 53 ikasle ginen, eta profesionalen 80 bat. Talde txikitik banatuta geunden, baina gogorra zen. Ez bazintuzten gai ikusten, mailaz jaisten zintuzten. Klaseak klase normalak ziren. Barra eta zentroa egiten genuen. Batzuetan gyma ere egiten genuen, egunaren arabera. Bigarren orduan azken eguneko ikuskizuna prestatzen genuen, eta hirugarren orduan Karakter izeneko estilo berri bat egiten genuen. Zaila zen estiloz guztiz aldatzea zelako, eta pixka bat zaila zen.

Ikastaro hau San Petersburgon, Istanbulen eta Alacanten egiten zen. Nongo jendea zegoen?

Polonia, Suitza, Portugal, Frantzia, Espainia... Nafar bakarra nintzen ni. Elkar ulertzeko ingelesa erabiltzen genuen, baina nik ere ez dut asko kontrolatzen; beraz, mimikaz ulertzen genuen elkar.

Dantza ez ezik, beste gauza batzuk ere ikasi dituzue.

Bai. Baita errutinak eta beste kulturak ere. Gainera, bi hitzaldi izan genituen ere: lehenengoa ballet influencer errusiar ezagun batena eta bestea konpainiako dantzari batena. Lehenengoak

Instagramen ballet dantzari influencerra izateko eta ospea lortzeko urratsak kontatu zizkigun. Besteak azaldu zigun konpainia batean sartzea zaila dela, eta berez dantza ez dela zaila baina diziplina handia izan behar dela: egunero kirola egin, elikadura zaindu eta abar. Aste bat galduz gero, nabaritu egiten da.

Nongoak ziren irakasleak?

Denak errusiarrak ziren. Askok ingelesez zekiten, eta ez zuten itzultzailerik behar; baina beste batzuek ez zekiten, eta neska batekin egiten genuen klasea. Urratsez urrats dena itzuli behar zuen. Oso exijenteak ziren. Hasserretzen zirenean beldur pixka bat ematen zuten. Baina, beste alde batetik, gurekin jatorrak ziren, eta txantxetan ibiltzen ziren. Ez zuten bakarrik alde txarra ateratzen. Baina gogorrak ziren, bai. Ez zuten bakar bat ere pasatzen uzten. Oihukatzen zuten, eta guk egin egin behar izaten genuen. Purrustada botatzen zuten, baina ohitu ginen.

Zer izan behar du ballet dantzari batek?

Elastikotasuna. Hanketan eta besoetan indartsuak izatea eskatzen ziguten. Norberaren estiloak ere asko egiten du. Nik ikusten nituen oso ballet dantzari onak zirenak, baina ezer transmititzen ez zidatenak. Aldiz, beste dantzari batzuk ballet prototipo horretatik aldentzen ziren, baina dantza egitean sentitzen zutelako ikusten zen. Beste zerbait adierazten zuten. Niri hori gehiago gustatzen zait. Nik uste irakasleak ere horretaz arduratzen zirela.

Jantzia ere garrantzitsua da. Zer eraman behar du ballet klase batera?

Mototsa ongi egin, ongi lotuta, edozein mugimendurekin ez desegiteko, mallota eta media garbiak. Oso garrantzitsua da hori. Media punta zapatak, puntak eta karaktereko zapatak, kasu honetan. Beheko partea ez da hain garrantzitsua: batzuek gonatxoa eramaten dute, beste batzuek short-ak, plastikozko praka bereziak...

"BALLETT ERRUSIAKO UDAKO IKASTAROA IZUGARRI DISFRUTATU NUEN, BAINA GOGORRA IZAN ZEN"

Bukaeran ikuskizun bat egin zenuen, ezta?

Maila bakoitzak bariazio bat egiten zuen. Gurea Silfide zen. Lehenengo talde bat ateratzen ginen, soinekoak ederrak ziren, buruko apaingarria... Ondoren, beste talde bat sartu zen eszenatokian. Bi astetan ikasitakoa erakutsi genuen.

Dantzaren alde onak eta txarrak azaldu dizkizute, eta, hala ere, aurrera jarraitu nahi duzu?

Esperientzia honek begiak ireki dizkit. Konfinamenduak edozer gauza egiteko gogoa kendu zidan, eta, azkenean, gogorik gabe nengoen. Pentsatzen nuen denak horrela jarraitzen bazuen... Orduan, hemen ikusi dut mundu hau nolakoa den eta gogorra dela. Trebatzen jarraituko dut, eta egunen batean nekatzen banaiz edo iristen ez banaiz, nire bizi-tzaren etapa izugarri polit bat izango da, beti gogoratuko dudana; izan ere, oso txikitik hasi nintzen. Momentuz, kastingetara eta probetara aurkezten jarraituko dut. Ikastaroaren amaieran irakasleek gurasoekin hitz egin zuten, eta esan zieten irakasleek oso ongi ikusi nindutela eta oso ongi aritu nintzela. Amak komentatu zien garaikidea gusztatzen zaidala, eta haiek dudarik gabe garaikidean ikusten nindutela esan zuten.

Zer esaten dizute familiak eta lagunak?

Nire gurasoek beti babestu naute. Hori egin nahi badut lagun-duko didatela esan didate, eta ahal duten guztia egingo dutela. Baina gogorik gabe ikusten bannate galdetzen didate onginagoen edo zer gertatzen den. Badakite oso gogorra dela. Orduan, egunen batean utzi behar badut, beldurrik gabe esateko esaten didate. Sakrifizio handia da beraiendako ere. Egunero Iruñera eraman behar naute, eta hori ezin du edonork egin. Ikasketak lehenengo daudela esaten didate ere; beraz, egunen batean ikasketak gaizki badoaz, balleta amaituko da. Ni antolatzen saiatzen naiz ikasketak egunean eramateko; autoan ikasten joaten naiz eta abar.

Eta egunen batean nekatzen bazara, dantzan jarraituko duzu?

Bai, ballet irakaslea izaten saiatuko nintzateke. Txikitxoie balleta irakasten hasiko nintzateke. Azken finean, zaila da balletean hastea gurasoek ezin dutelako. Nik nahi nuke neska edo mutil horiek aukera izatea.

"Zaldiekin egotea, hori gustatzen zait gehiena"

Hipika ez da kirolik ezagunena Sakanan, baina Mikel Zufiaurre Estevez horretan aritzen da. Berak animaliekiko zuen harremana aldatu du hipikak, eta Hamahiru bere zaldiarekiko erlazio ona azpimarratu du

Munia El Marhoum Iruretagoiena
ALTSASU

1 Euskadiko Selektzioarekin Espainiako TREC txapelketan parte hartu duzu. Nolakoa izan da esperientzia hori?

Ba, lehia igande batean izan zen, eta gu aste horretan bertan astelehenean heldu ginen lehiaketa izango zen tokira. Han egon ginen aste osoan entrenamenduak egiten, iganderako prestatzen.

2 Zertan datza txapelketa?

Hiru proba daude. Lehenengo orientazioa da. Parte hartzaileok mapa bat eta iparrorratz bat daramatzagu, eta, horiez baliatuta, mendira atera, eta orientazio proba bat gaingitu behar dugu. Bigarren probaren izena PAR da, aireko proba. Horretan 100 metroko zelai bat daukagu. Joatean galopan joan behar da, baina ahalik eta mantsoen, trotera, erori gabe. Buelakoan, aldiz, azkar etorri behar da, trotean, galopan hasi gabe. Azken proba PTV da: mendian egiten da, eta bertan berez dauden oztopoak gaingitzean datza, adibidez, ateran bat irekitzea, edo salto bat egitea.

3 Nola puntuatzen da?

Orientazioan, esaterako, kontrol puntu batzuk daude. PAR aireko proban denboraren arabera da puntuazioa: zenbat eta azkarrago egin lehenengo buelta, orduan eta puntu gehiago lortzen dira. Itzuleran, aldiz, ahalik eta geldoen eginda lortzen dira puntu gehien. Azken proban, PTVn, puntuazioa kalitatearen arabera da: zaldia gelditu egiten bada salto egin behar duenean, puntu gutxiago lortzen dira.

4 Txapelketan bigarrena izan zara. Pozik zaude?



Mikel Zufiarre Estevez eta Hamahiru saria lortu berritan. UTZITAKOIA

Bai, oso gustura nago lortutakoarekin, oso pozik. Espero nuen probak ongi egitea, baina ez hain ongi. Hipika munduko txapelketak ez dira ezagunenak, baina maila handia dago. Bertara astebete lehenago joan ginen, eta munduko txapelketan egon zen batekin egon ginen entrenamenduak egiten. Aurretik hemen ere prestatu gara.

5 Noiz hasi zinen hipika mundura hurbiltzen?

Orain dela bi urte. Familiarekin joan ginen zaldietan ibiltzera, lehenago inoiz egin ez genuen zerbait izan zen hori. Asko gustatu zitzaigun, eta horregatik hasi nintzen. Naturala izan zen.

6 Zaldiaren eta zaldizkoaren arteko harremana nolakoa izan behar da?

Ona izan behar da erlazioa. Elkar ulertu behar dute, eta halako harremanik sortzen ez bada jai daukate. Ni nire behorarekin ibiltzen naiz; Hamahiru du izena. Urtebete daramat berarekin, eta oso erlazio ona daukat. Zaldiari zerbait txarra egiten bazaio, jutzen baduzu, edo halako zer edo zer, zaldiak gogoratu egingo du. Horregatik errespetatzea eta tratu ona ematea oso garrantzitsua da.

7 Zer da zuretzako lantzen zailena txapelketara begira?

Adibidez, puntu batetik bestera zaldia bakarrik eramatea, askotan zaldiak atera egiten direlako bidetik. Horrez gain, hiru probak zaldi berberarekin egiten dira, eta proba bakoitza zaila da. Horregatik, hirurak ongi egitea, balantzatuta eta bateratuta oso zaila da.

8 Lehiaketan parte hartzeak inolako presiorik sortzen dizu?

Bai, ateratzean presioa sentitzen da. Nire kasuan, azken proban hirugarren zegoenarekin berdinduta nengoen. Beraz, horrek presio handiagoa sortu zidan. Hori kudeatzeko, atera eta soilik ibilbidean pentsatu nuen.

9 Zein da zure probarik onena edo gustukoena? Zertan sentitzen zara erosoan?

Gehien gustatzen zaidana PTV da. Gehienbat salto gehiago daukelako proba horretan, eta galopan edo lauoinka gehiago ibiltzen garelako, gusturago ibiltzen naiz. Hemen entrenatzen dudak tokian saltoak egiten ditugu, asko, eta behorra eta biok horretan prestatzen garenez, hori egiten zait errazen. Orokorrean, zaldiengana joan eta haiekin egotea da

hipika mundutik gehien gustatzen zaidana.

10 Nolakoa da giroa klubean?

Inoiz ez naiz bakarrik egoten, beti dago jende gehiago: lagunak, monitorea... Erlazio oso ona daukagu denon artean, eta hipikatik kanpo ere geratzen gara. Niri lehen ez zitzaizkidan animaliak asko gustatzen, baina zaldian ibiltzen hasi nintzenean trantsizio bat eman zen, eta gustatu zitzaidan. Orain hobeto nago han, zaldi artean, etxean edo beste edozertan baino.

11 Azkenik, ze asmo daukazu etorkizunera begira?

Nik zaldiekin zerikusia daukan zerbait ikasi nahi dut etorkizunean. Nire emaitzak ere hobetu egin nahi ditut, lehiaketetan ongi aritu, eta etortzen dena etorriko da.



**ZUREKIN
BERRABIAZTEKO
PREST**

gk

DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

